

*ALAITZ BHI*

**HEZKUNTZA PROIEKTUA**



# AURKIBIDEA

<b>HEZKUNTZA PROIEKTUA</b> .....	1
1. IKASTETXEAREN ETA BERE INGURUNEAREN EZAUGARRIAK .....	5
2. INSTITUTUAREN HELBURUAK .....	5
2.1. Helburu orokorrak.....	5
2.2. Balore eta jarreraren sistema.....	6
3. INSTITUTUAREN EGITURA .....	6
3.1. Gobernu organoak.....	6
3.1.1. Kide bakarreko Gobernu Organoak .....	7
3.1.2. Irakaskuntzako Koordinazio Organoak.....	7
3.2. Ikasleen ordezkarien batzarra eta elkarteak .....	7
3.3. Ikasleen gurasoen elkarteak .....	8
3.4. Irakasle funtziorik ez duen langileriak.....	8
4. ELKARBIZITZA PLANA .....	8
5. ELKARBIZITZA ARAUDIA .....	19
5.1. HITZAURREA .....	19
5.2. I. KAPITULUA. Xedapen orokorrak. Oinarrizko printzipioak.....	20
5.2.1. Oinarrizko printzipioak. ....	20
5.3. II. KAPITULUA. Familien parte-hartzea.....	21
5.3.1. Familien inplikazioa eta konpromisoa. ....	21
5.3.2. Aiten, amen edo legezko ordezkarien eskubideak. ....	21
5.3.3. Gurasoen edo legezko ordezkarien erantzukizunak. ....	22
5.4. III. KAPITULUA. Ikasleen eskubideak eta eginbeharrak.....	22
5.4.1. IKASLEEN ESKUBIDEAK.....	23
5.4.2. IKASLEEN EGINBEHARRAK.....	32
5.5. IV KAPITULUA. Irakasleen betebeharrak eta eskubideak.....	35
5.5.1. Betebeharrak.....	35
5.5.2. Eskubideak .....	35
5.6. V KAPITULUA. Atezain eta ordenantzen funtzio, betebeharrak eta eskubideak .....	35
5.6.1. Atezain eta ordenantzen funtzio eta betebeharrak.....	35
5.6.2. Atezain eta ordenantzen eskubideak .....	36
5.7. VI KAPITULUA. Administrazio-langileen betebeharrak eta eskubideak .....	36
5.7.1. Betebeharrak.....	36
5.7.2. Eskubideak .....	37
5.8. VII. KAPITULUA. Elkarbizitzaren aurkako portaerak eta hezkuntza neurriak .....	37

5.8.1. Elkarbizitza nahasten duten portaerak zuzentzeko printzipio orokorrak .....	37
6. ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO PLANA .....	49

## 1. IKASTETXEAREN ETA BERE INGURUNEAREN EZAUGARRIAK

---

ALAITZ Bigarren Hezkuntzako Institutua, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren menpeko ikastetxe publikoa da, 1995. urtean zabaldu eta Barañaingo herrian kokatua dagoena.

D ereduko ikastetxea izanik, euskara da irakasteko erabiltzen den hizkuntza, Gaztelera curriculum-aren beste irakasgai bat delarik. Eguneko erregimenean, bi dira eskaintzen dituen hezkuntza etapak:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH): 12 eta 16 urte bitarteko ikaslegoarentzat
  - Batxilergoa, hiru modalitatetan:
    - Zientziak (LOMCE 1. maila) eta Zientziak eta Teknologia (LOE 2. maila)
    - Humanitateak eta Gizarte Zientziak (LOMCE 1. maila eta LOE 2. maila)
    - Arte Eszenikoak, Musika eta Dantza (LOMCE 1. maila eta LOE 2. maila)
- 16 eta 18 urte bitarteko ikasleentzat.

Azken 30 urtetan hiri eta populazio hazkunde handia bizi izan duen herria da Barañain. Horrela, Iruñetik gertu zegoen nekazal giroko herrixka bat izatetik, Nafarroako hirugarren hiri gunerik jendeztatuena bilakatu da. Udalerrriak berezko hornidura eta komunitate-zerbitzuak ditu (Osasun Etxea, Oinarrizko Gizarte Zerbitzua, Haurtzaindegia, Kultura Etxea, Musika Eskola, herri liburutegia, polikiroldegia, ludoteka, Baragazte eta bestelako gazteria zerbitzuak,...), hala nola era ezberdineko kirol eta kultura elkarteak; honek guztiak, berezko bizimodu eta gizarte nahiz kultura-jarduerak garatzea ahalbideratzen dio udalerrriari. Gureaz gain, herrian bada Bigarren Hezkuntzako beste institutu bat G eta A hizkuntza-ereduak eskaintzen dituen, Haur eta Lehen Hezkuntzako hiru ikastetxe publiko (horietatik bi G eta A eredueta eta D eredukoa hirugarrena) eta ikastetxe pribatu bat. Horrela bada, ALAITZ izena ere duen Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea eta gure institutua, irakaskuntza elebiduna aukeratu duen Barañaingo ikaslegoaz arduratzen dira.

Aipaturiko ikaslegoa, oro har, kultura eta maila sozioekonomikoari dagokionez biztanleriaren maila ertain baten barruan dagoela esan liteke. Gure ikasleen hezkuntza premia ohikoenak, bada, eskolatze hizkuntza (euskara) gehienentzat bigarren hizkuntza izatetik datoz; hortaz, familia nahiz gizarte eremuetan euskararen erabilera-erak sorturiko gabeziak dira gehien nabarmentzen diren beharrak.

## 2. INSTITUTUAREN HELBURUAK

---

### 2.1. Helburu orokorrak

- A. Euskararen ahozko nahiz idatzizko maila egokia eskuratzen lagundu ikaslegoari, ikastetxearen jarduera guztietan bere erabilera bultzatuz. Era berean, Institutuaren ekarpenak eragina izan dezakeen neurrian, Euskararen berreskuratze eta normalizazioa sustatzen duten ekimenetan parte hartuko da.
- B. Ikaslegoaren ezagutza, trebetasun eta baloreetan osoko prestakuntza erraztu, bizitzaren eremu ezberdinetan (norbanako, familia, gizarte nahiz lanbide-alorretan) baliagarri izango direnak.
- C. Heziketa pertsonalizatua bultzatu, ikasleengan dagoen aniztasuna (garapen, gaitasun, motibazio eta interes maila ezberdinetan) kontuan hartzen duena.
- D. Sortzeko gaitasunak eta espirtu kritikoa garatu, irakaskuntza eta ikaskuntza jardueren bitartez norbere buruaren aurkikuntza, behaketa, hausnarketa eta bereizmena bultzatuz. Era berean, entzuteko, elkarriketa izateko eta ikuspegi trukaketa egiteko gaitasuna sustatuko da, desakordio eta gatazken konponbiderako bitarteko gisa.
- E. Sexuen arteko eskubide berdintasuna, edozein eratako bereizkeriaren aurreko gaitzespena eta kultura guztien begirunea modu eraginkorrean gauzatu.

- F. Eskola-komunitate kide guztien parte hartzea erraztu, lankidetzara eta lan banatuaren bitartez, estamentu bakoitzak duen esparrutik, hezkuntza helburuak lortzeko era bultzatuz.
- G. Ikasleak, Teknologia berrietan erabiltzen ohitzea eta beren lan inguruko tresna bat izatera pasatzea. TIC-en erabilera irakaskuntzako metodo arrunta bilakatzea zentroko irakasle guztientzat.
- H. Irakur ulermena indartzea, edozein ikasteren ezinbesteko oinarria, horretan eragina duten hobekuntza planak bultzatuz.
- I. Hezkuntza departamentutik bultzatutako sistema ezberdin bitartez kanpoko ebaluazioa jasotzeko prest egotea, gure zentroko emaitzak onak izatera saiaturik.
- J. Ingelera hizkuntzaren menperatzea bultzatzea, zentro beratik edo hezkuntza departamentutik sor daitezkeen prestakuntza planetan parte hartuz, inplikaturik dauden irakasleei behar duten laguntza eta errekursoak bermatuz gero.

## 2.2. Balore eta jarreraren sistema

- A. Lan eta lankidetzara espiritua
- B. Ohiko lanetan, banakoetan nahiz taldekakoetan, parte hartzeko eta ahalegintzeko jarrera
- C. Erantzukizun pertsonala
- D. Eskola bizitzaren ondorio diren zeregin eta betebeharrak nor bere gain hartu
- E. Edozein aukera egitearen ondorioak baloratu eta nor bere erabakietatik datozen ondorioak ere onartu
- F. Bereizmenerako gaitasuna eta espiritu kritiko-konstruktiboa
- G. Zentzumen kritikoaz erabili informazio iturri eta eduki ezberdinak
- H. Nor bere iritzia eta erabaki hartzeak osatu, informazioa eta aukera nahiz irizpide ezberdinen gaineko hausnarketa oinarritzat harturik
- I. Begirunea pertsonen arteko harremanetan eta bizikidetzan
- J. Besteenganako errespetu jarrera giza harreman eta bizikidetzan
- K. Elkarrizketarako eta besteen iritzia entzuteko jarrera. Adostasunez akordio eta irtenbideak lortzeko jarrera eta, hala badagokio, gehiengoak hartutako erabakien onarpena
- L. Elkartzasuna eta lankidetzara jarrera laguntza behar duten pertsonekin edo egoeren aurrean
- M. Ingurune fisiko eta sozialean agertzen diren ondare eta izakienganako begirunea
- N. Ingurugiroa aintzat hartu eta errespetatu, bere zainketa eta mantenuan ohitura nahiz portaera egokiek lagunduz
- O. Ondare materialak baloratu eta errespetatu (hala ohikoak eta egunerokoak nola arte edo kultura arlokoak), beraien erabilera egokia eginez.

## 3. INSTITUTUAREN EGITURA

---

Heziketa zereginetan ardura duten estamentu guztiek osatzen dute eskola-komunitatea: irakasleak, ikasleak, gurasoak eta irakasle funtzionarioak ez duten beste langileak. Estamentu hauetan ondoko antolaketa-egitura hauek bereiz daitezke:

### 3.1. Gobernu organoak

- Eskola Kontseilua
- Eskola Kontseilua da hezkuntza komunitateko sektore guztiek Institutuaren funtzionamenduan parte hartzeko organoa. Bertan ordezkariak dute honako estamentuek: irakasleak, ikasleak, gurasoak, administrazio eta zerbitzuak langileak eta Udala.

- Beraz, institutuko eskola kontseiluak ondoko kideak izanen ditu: institutuko zuzendaria (kontseiluburua dena), ikasketa burua, klaustroak hautatutako sei irakasle, ikasleen hiru ordezkari, gurasoen hiru ordezkari, administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat eta Barañaingo udaleko zinegotzi bat. Haez gain, Institutuko Idazkaria Kontseiluaren idazkaria ere izanen da, hizpidea bai baina botorik izanen ez duena.
- Elkarbizitza Batzordea
- Irakasleen klaustroa
- Klaustroa irakasleek institutuan parte hartzeko duten organoa da eta bertan ari diren irakasle guztiek osatuko dute.

### **3.1.1. Kide bakarreko Gobernu Organoak**

#### *Zuzendaritza taldea*

Kide bakarreko gobernu organoek (Zuzendariak, Zuzendariordeak, Idazkariak eta Ikasketa-buruak, alegia) osatzen dute institutuko zuzendaritza taldea eta era koordinatuan arituko dira haien eginkizunetan.

### **3.1.2. Irakaskuntzako Koordinazio Organoak**

#### *Koordinazio Pedagogikorako Batzordea*

Zuzendariak, Zuzendariordeak, Ikasketa-buruak eta Departamentu-buruek osaturiko batzordea da. Irakaskuntzaren plangintza eremuan erabakiak hartu eta institutuan burutzen diren jarduera ezberdinak koordinatzea da bere eginkizuna. Erabakiok klaustroari helaraziko zaizkio ondoren, bertan onarpena edota atzera botatzea emanen zaielarik.

#### *Departamentu didaktikoak*

Departamentu didaktikoak irakasleak institutuko bizitzan integratzeko aukera ematen duten lantaldeak dira, eta beren eskumenen barruan diren arlo edo materiei dagozkien irakaspenak eta jarduerak antolatu eta garatzeko ardura izanen dute. Irakasleek irakaskuntzaren antolaketan parte hartzeko bide arrunta dira.

#### *Mailako Tutore taldea*

Maila bereko ikasle taldeentzat izendaturiko tutore guztiek osatzen dute talde hau. Tutoretza planaren eta hezkuntza orientabiderako planaren garapenean parte hartzea eta beraietatik etorritako jarduerak koordinatzea da talde honen eginkizuna. Hori dela eta, asteroko bilerak egiten dira institutuko orientatzailearekin.

#### *Taldeko irakasleen lantaldea*

Ikastaldeko irakasleen lantaldea ikasle horiei eskolak ematen dizkieten irakasle guztiek osatuko dute, tutorearen koordinaziopean. Ebaluazio saioetako ohiko bilerak izateaz gain, taldeko tutoreak proposaturik, Ikasketa-buruak deitzen dituen ere elkartuko da ikastaldeari dagozkion jarduerak adostu eta burutu ahal izateko.

## **3.2. Ikasleen ordezkarien batzarra eta elkarteak**

Institutuak Ikasleen Ordezkarien Batzar bat izanen du, honela osatua: talde bakoitzeko ikasleek hautatutako ordezkariak eta ikasleek institutuko Eskola Kontseiluan dituzten ordezkariak.

Honez gain, ikasleek elkartzeko eta elkarteak eratzeko eskubidea izango dute, ikasleen betebeharrak eta eskubideei buruz egun indarra duen araudian jasotako funtzioak garatu ahal izateko.

### 3.3. Ikasleen gurasoen elkarteak

Ikasleen gurasoek elkarteak eratu ahalko dituzte, Bigarren Hezkuntzako Institutuen Arautegi Organikoan bildutako funtzio eta ahalmenak izanik.

### 3.4. Irakasle funtziorik ez duen langileriak

Administrazio eta Zerbitzuetako langileek osatua da kolektibo hau. Eskola Kontseiluan ordezkari bat dute, beraiek eta beraien artean hautatutakoa.

## 4. ELKARBIZITZA PLANA

---

### a) Elkarbizitzaren egoera ikastetxean

Ikaslego nahiko homogeneoa dugu gure ikastetxean, maila sozio-ekonomikoan eta jatorri geografikoari dagokionean.

Gehiengoaren jatorrizko ikastetxea berdina da, Barañaingo Alaitz eskola hain zuzen ere; beraz beraien artean ezagunak dira eta aurreko elkarbizitza bat izan dute gure ikastetxera sartu aurretik.

Familien maila ekonomikoa ertaina edo ertaina-altua da, alde horretatik ez dugu arazorik detektatzen. Orokorrean, ez da ikasleen familiengan arazo larririk sumatzen, nahiz eta salbuespenak eman.

Gertatzen diren arazo gehienak ikasleen arteko liskarrak izaten dira. Liskar hauek gutxitan iristen dira eraso fisikoraino eta ahoko agresibitatea (irainak, mespretxuak,...) izaten da gatazkaren agerpena.

Zenbait ikasleek ikasgeletan azaltzen dute jarrera, jarduera didaktikoa oztopatuz, liskarren iturri arrunta izaten da ere. Honelakoetan irakasleek jarrera horiek zuzentzeko neurriak hartu behar izaten dituzte.

Batzuetan talderen batean gertatzen da lider bat nagusitzea eta honek taldeko zenbait ikaslerekin jarrera baztertzaila edo isolatzailea izatea. Horrelakorik gertatzen denean ere, jazarpen maila ez da oso larria izaten.

Neska eta mutilen arteko harremana nahiko ona dela esan daiteke, baina jarrera sexistak ez dira desagertu. Talde antolatutik, bandak eta antzekorik ez da sumatzen.

### b) Helburuak :

#### b.1) Irizpide orokorrak:

Elkarbizitza plan honen helburu nagusia eskolako ikasle guztiak eroso sentitzea da, besteekin harremanatzeko eta agertzeko aukerak izatea, norbera den bezalakoa izanik. Alegia, sozializazio eta harreman egokiak bultzatzeko espazioa izan behar du institutuak, ikasleen garapen pertsonal eta sozialean lagunduko duena.

#### b.2) Helburu zehatzak:

a) Elkarbizitzarako hezkuntza planifikatu eta ikasle guztiak heziketa emozionalean, balioen heziketan eta trebetasun sozialen ikasketan prestatzea, gaitasun guztiak integratzen dituen ikuspegitik.

b) Elkarbizitzaren giroa etengabe hobetzea, ezinbesteko elementua baita eskolako eta ikasketen errendimendu egokirako.

c) Hezkuntza komunitate guztia sentsibilizatzea elkarbizitza positibo baten aldeko ekintzak planifikatu eta garatu beharraz.

d) Gatazken konponbide baketsua sustatzea gogoeta eta ikasketa baliatuz, baita elkarrizketa bidezko teknika eta estrategiak erabilia ere, entzute aktiboa eta alde guztietarako konponbide adostu eta onuragarrien bilaketa bultzatuta, eta komunikaziorako bideak ezarrita.



- e) Hezkuntza komunitateko kide guztien arteko errespetua, onarpena eta tratu ona sustatzea. Tratu on horrek pertsonen arteko harreman guztietara hedatu beharko du.
- f) Ikasgelako eta ikastetxeko arauak denen artean prestatzea bultzatzea, baita haienganako errespetua ere.
- g) Lankidetzarako bideak ezartzea ikastetxearekin zerikusia duten kanpoko eragile edo entitateekin, arreta berezia eskainiz gurasoen elkarrekin eskola orduetatik kanpo eskaintzen dituzten zerbitzuei, jarduketaren irizpideak jarduera horietara zabaltzearen.

### c) **Elkarbizitza batzordea eta beste egitura batzuk. Osaketa eta funtzioak**

Honela osatuko da elkarbizitza batzordea:

- a) Zuzendaria edo hark zuzendaritza taldean izendatzen duena.
- b) Ikastetxeko elkarbizitzaren ardura duen irakaslea.
- c) Ikastetxeko beste irakasle bat, elkarbizitzan prestakuntza duena.
- d) Orientatzailea.
- e) Gurasoen elkarrekin hautatzen duen kide bat, aita edo ama.

Elkarbizitza batzordeak eginkizun hauek ditu:

- a) Elkarbizitza planari lotuak.
  - a.1) Elkarbizitza plana diseinatu eta bere urteko zehaztapenak, urteko programazio orokorrean sartuko direnak, denen artean prestatzeko prozesuaz arduratzea.
  - a.2) Elkarbizitza plana eta bere urteko zehaztapenak prestatzeko proposamenak jaso eta sortzea.
  - a.3) Elkarbizitzaren egoera ezagutzeko aldi behineko azterlanak programatu, bultzatu eta burutzea, baita elkarbizitza planaren urteko ebaluazioa ere, eta behar diren hobekuntzak proposatzea.
  - a.4) Elkarbizitza planaren aplikazioaren berri ematea hezkuntza komunitateari.
  - a.5) Urteko zehaztapenaren memoria prestatzea.
- b) Elkarbizitzarako erregelamenduari lotuak.
  - b.1) Elkarbizitzarako erregelamendua berrikusten laguntzea.
  - b.2) Elkarbizitzarako erregelamendua ikastetxean aplikatzeko jarduketei buruzko informazioa bilatu eta iradokizunak egitea, bidezkoa denean.
- c) Prestakuntzari eta aholkularitzari lotuak.
  - c.1) Hezkuntza komunitateari aholku ematea elkarbizitzaren arloan, eta prestakuntza jarduerak bultzatzea, bai irakasleentzat bai hezkuntza komunitatearen gainontzekoentzat, gai horretan.
  - c.2) Elkarbizitzarako hezkuntza arlo eta irakasgaien curriculumean sar dadin proposatzea.
  - c.3) Zuzendaritzari aholku ematea erabakiak hartzeko orduan, elkarbizitzaren kontrako jokabideen edo harentzat oso kaltegarriak direnen aurrean hezkuntza neurriak hartzeko.
- d) Bitartekotzari lotuak.
  - d.1) Bitartekotza taldeak sortzea eta haien funtzionamenduaz arduratzea.
  - d.2) Bitartekotza formaleko prozesuak antolatzea, foru agindu honen IV. kapituluaren arabera.

### d) **Ekintzarako ildoak**

#### d.1) **Printzipio orokorrak:**

Gatazkaren aurrean lehenetsia izango duten printzipioak **elkarrizketa** eta **bitartekaritza** dira. Ildo honetan, institutuak elkarreragin soziala bultzatzen duen neurrian, harremanetan gatazkak agertzea itzarotekoa eta gertaera saihestezina dela ulertzen dugu. Beraz, gatazka irakats bide bat bezala ulertu behar da, arazoaren aurrean artekaritza eta konponbide elkarrizketatua bilatzeko aukera eta irakaspena emango duena.

Gatazka horrela ulertuta ere, eguneroko elkarbizitzan sor daitezkeen arazoak **aurreikuste** da beste helburu bat. Era honetan, beharrezkoak diren jarduerak eta ekimenak burutuko dira ikasleen arteko liskarrak ahalik eta gehien saihestu edo behintzat ondorioak arintzeko.

Gatazkaren bat gertatzekotan, arazoari aurre egingo zaio arestian aipatutako printzipioak kontuan harturik, baina beti ere egindako kalteen **erreparazioa** bilatuz eta **babesa** eskainiz jazarpena jaso zezaketen ikasleei. Honekin batera, zenbaitetan jazarpenak ikasleengan sortarazten duen isolamendua hautsi eta egoera horien berri izateko beharrezkoak diren prozedurak erabiltzea da plan honetan nabarmendu behar den beste helburu bat.

Ikasle guztiek argi eta garbi izan behar dute zeintzuk diren onartu behar ez dituzten jokaerak, hau da, ondo bereizi elkarbizitza normalean ematen diren liskarren eta onartezinezko jazarpen-jarrerren artean.

Jazarpena gertatzen bada, hura gaitzestea da funtsezko helburua, hau da, ikasle bati sistematikoki erasotzen zaionean jarrera hori ez onartzea eta salatzea.

Ikasle batek horrelako traturik jasaten badu, nola jokatu behar duen eta arazoa konpontzeko zein pauso eman behar dituen ezagutzera emango da.

## d.2) Bitartekaritza taldea

### Zer da bitartekaritza

Aurrez aurre dauden bi aldeen arteko elkarrizketa eta negoziazio prozesua da bitartekaritza, hirugarren pertsona edota instantzia baten parte hartzearekin.

Desadostasunak dituzten bi aldeen artean komunikazioa erraztea da bitartekaritzaren helburua, horren bitartez arazoaren konponbiderako akordio bat lortzeko asmoz.

Honetarako, bitartekari lana hartzen duen pertsona edota instantziak jarrera neutrala bereganatu behar du, bere sinismen edota iritzi pertsonalak adierazi gabe.

Aurrez aurreko aldeentzat borondatezko prozesua eta bi aldeek eskatutakoa da; hau da, gatazkan ari diren aldeek hirugarren baten parte hartzea onartu behar dute eta, beraz, beraien arteko arazoa hobetzeko borondatea izango da prozesuaren abiapuntua.

Zigor-ondorioak ekar ditzakeen istilu baten aurrean, bitartekaritza modu osagarri batean erabil daiteke, aurrerantzean bi aldeen artean antzeko liskarrak saihesteko asmoarekin. Hau da, bitartekaritza egiteak ez du baztertzeko neurriak hartzea, baina zigorra ezarri behar duen instantziari laguntza eman diezaiotke arazoaren izaera eta jatorria hobeto ulertzeko.

Esandako guztia kontuan harturik, bitartekaritza:

- Ez da epaiketa bat, non alde bati zein besteari arrazoia ematen zaion.
- Ez du kanpoko konponbiderik eskaintzen, baizik eta laguntza ematen diela gatazkan ari diren bi aldeei beraien kabuz, elkarrizketa eta adostasunaren ondorioz, konponbidea lor dezaten.
- Ez da inoren alde jartzen. Bi aldeek bitartekariari ematen dioten neutraltasun ustean oinarritzen da bitartekaritza; baten zein bestearen alde jartzeak prozesua baliorik gabe utziko luke alde baten konfiantza galtzea ekarriko lukeelako.
- Bitartekaritza prozesu bat hasteak ez du suposatzen beste instantzia batzuk (zuzendaritza, eskola kontseilua, ikuskaritza,...) parte hartuko ez dutenik.

### Noiz egin bitartekaritza

- Eskola giroan eta bere kideen artean sor daitezkeen edozein istiluren aurrean, gatazkan ari diren bi aldeek hala eskatzen badute.
- Konpondu gabeko elkarbizitza arazoaren aurrean: ikasleen, irakasle eta ikasleen, zein guraso eta irakasleen arteko harremanetan eman daitezkeen liskarrak.
- Diziplina arazoaren aurrean, batez ere hauek behin eta berriro edota beti pertsona berdinen artean ematen direlako, arazoa errotzeko arriskua dagoenean.

- Bitartekaritza ez da egokia izaten alde bat besteari inposatu zaionean kalte larri bat eraginez (kalte fisikoak ekarri dituen erasoak, tratu txarrak edota beldurrarazteak,...); edonola ere, adostasun bat bilatu baino, kalteen ordaina edo "erreparazioa" bilatzen lagun dezake bitartekaritzak.

### **Bitartekaritza taldea**

Elkarbizitza Batzordeak biltzen dituen pertsonak osatzen dute Bitartekaritza Taldea, bertan eskola komunitatearen kide ezberdinek ordezkariak dutelarik: gurasoak, ikasleak, gurasoak, zuzendaritzak,...

Kide ezberdinen lana honako hau izango litzateke: gerta daitezkeen istiluak jaso, bitartekaritzaren laguntza eskaini eta Batzordeari eskaerak helaraztea. Iristen diren eskaeren aurrean Batzordeak erabakiko luke, arazoaren ezaugarrien arabera, atentzioa emango zaion eta nor den bitartekaritza eramango duen pertsona.

Hasiera batean, Taldeko kideren bat izango litzateke bitartekaritza aurrera eramango lukeena, baina baliteke Batzordearen iritziz gaitua dagoen beste pertsona bat izatea.

Bitartekari lana egingo duen pertsonak ondoko baldintza hauek bete beharko lituzke:

- Bi alderen arteko gatazka batean bitartekaria izateko gogoia.
- Elkarrizketa mantentzeko eta elkarri entzuteko jarreraren aldekoa izan.
- Gatazkan ari diren bi aldeei laguntzeko gogoia izan, haien arteko komunikazioa erraztuz eta bi aldeentzat onargarria den konponbide adostua bilatuz.
- Bi aldeen konfiantza izan; horretarako ezinbestekoa da jarrera neutrala mantentzea, baten alde jarri gabe, eta gatazkan nahastuta ez egotea modu zuzen edota zeharkakoan.
- Elkarrizketan aurrera egiteko eta adostasun baliagarriak lortzeko behar den denbora eman; bitartekaritzak erritmo eta garai ezberdinak izan ditzakeen prozesua dela kontuan izan behar da, eta bi aldeen oniritzia duen adostasuna lor daitezkeen onena dela argi izanez beti.

### **Taldearen parte hartzea**

Bi alderen arteko gatazka batean, eta beraien kabuz konpontzeko gai ez badira, Bitartekaritza Taldearen parte hartzea eskatu dezake eskola komunitateko edozein pertsonak. Taldearen edozein kideri egiten ahal zaio eskaera; horretarako, Taldea nortzuk osatzen duten eta bere funtzioak zeintzuk diren jakinaraziko da.

Esan bezala, bi aldeen borondatezko onarpena ezinbestekoa da bitartekaritza lana abiatu ahal izateko. Dena dela, bi aldeetako batek eska diezaioke laguntza Elkarbizitza Batzordeari; honek bigarren aldearekin harremanetan jarri, gatazkaren aurrean duen jarrera aztertu eta bitartekaritza lana hasiko luke, beti ere bien onarpena lortzen bada. Taldearen laguntza eskaera egiteak ez du suposatzen hau derrigorrez emango denik, ezta laguntza eskatzen duen pertsonak gatazkan dituen erantzukizunak, aurrekoak nahiz gerokoak, gutxiago izango direnik ere. Hau da, argi geratu behar da pertsona baten eskaeraren atzean, beste pertsona batekin duen arazoa gainditzeko benetako gogoia dagoela, eta ez dela bilatzen ari berari edota bere ekintzei arrazoia ematea.

Zuzendaritza taldeak ere Bitartekaritza Taldearen parte hartzea eska dezake, batez ere diziplina arazoan aurrean, puntuala edota behin eta berriz ematen dena, eta arazo horietatik etor litezkeen zigor-neurriak erabaki baino lehen.

Edozein parte hartzearen ondoren, Bitartekaritza Txosten bat burutuko du ardura hartu duen pertsonak; bertan azalduko du arazoaren deskribapena, nahastuta zeuden pertsonak, jarraitutako prozesua eta hartutako adostasunak. Adostasunik ez balego, horren aipamena egingo da txostenean. Txosten hauek, Elkarbizitza Batzordeak ikasturte bukaeran egingo duen oroitidazkian gehituko dira.

### **d.3) Planaren jarduerak**

#### **Prebentzio mailan:**

Ikasleei dagokienean tutorearekin ematen dituzten saioetan landuko da gai hau. Informazioa ematea litzateke helburu garrantzitsua. Horretarako, zenbait jarduera programatuko dira tutoretzarako elkarbizitza

aztertu eta hobetzea helburua izango dutenak. Tutoreek beraiek burutu ditzaketen jardueraz gain, guraso elkarteak nahiz Barañaingo Udalak eskaintzen dituzten tailerrak (ko edukazioa, sexualitatea, aisialdia eta kontsumoak,...) oso baliogarriak izango dira prebentzio-lan hau egiteko.

Tutoretzako jardueraz gain, badira beste ekimen batzuk elkarbizitza hobetzea helburua dutenak eta urtero programatzen direnak: ikasleekin egiten diren ateraldi eta egonaldiak, institutuan burutzen diren jaiak, eskolaz kanpoko jarduerak (xakea, hitzaldiak, ikuskizunak),....

Irakasleoi dagokigunean, aurre-ebaluaketan eta ebaluaketa-saioretan ikastaldeari buruzko balorazioa egiterakoan, tarte bat emango zaio gai honi eman daitezkeen kasuen berri izateko.

Tutoreak aparte, irakasle guztion sentsibilizazioa eta inplikazioa lortzea ezinbestekoa da, jarrera desegokiei aurre egiteko dena tutoreen gainean utzi gabe.

#### **Asistentzia mailan:**

Ikasleei eman behar diegu dituzten arazoak guri helarazteko modu erraza eta eraginkorra. Tutoreak, orientatzailea, ikasketa-burua edo bere konfiantzazko irakasleren bat, denok eman diezaiekegu aukera dituzten arazoak azaltzeko. Lehenago esan bezala, zenbait egoeratan gertatu ohi diren isiltasun eta isolamendu egoerei aterabide bat eman behar zaie; hau da, ikasle guztiak ezagutu behar dute norengana jo edo zer egin dezaketen honelako egoera batean aurkituz gero.

#### **d.4) Inplikaturiko pertsonak eta instantziak eta interbentzio prozedura**

- Arazoaren berri duen lehenengo **pertsona** (irakaslea, ikaslea, gurasoak, zerbitzuetako langileak,...)
- Honek **tutoreari** jakinaraziko dio.
- Arazoaren larritasunaren arabera, tutoreak erabakiko du berak konponduko duen edo **orientatzaileak** eta **ikasketa-buruak** parte hartu behar duten.
- Azken hauek, arazoaren larritasuna dela eta, erabakiko lukete arazoa beraiek bideratu edo **elkarbizitza-batzordea** konbokatzea.

Beraz, ideia nagusia hau da: gertaeraren larritasunaren arabera pertsona bakoitzak erabakiko duela berari edo beste instantzia bati dagokion arazoa bideratzea.

Normalean, tutorea izaten da horrelako kasu gehienei irtenbidea ematen diena. Aurreko puntuan esan bezala, bera izango da lehen balorazioa egingo duena eta honen arabera erabakiko duena. Aukera hauek ditu:

1. Arazoa bera konpontzen saiatzea, bitartekari-lana eginez, oso larria ez dela ikusten duelako.
2. Hurrengo instantziara pasatzea arazoa nahiko larria dela uste duelako.
3. Azken pausua elkarbizitza-batzordea konbokatzea litzateke.

Instantzia bakoitzak baloratuko du nori deitu eta nola egin behar duen informazioa jasotzeko, edota, hala badagokio, txostena prestatzeko. Edozein kasutan, gertaera bat Ikasketa-buru, orientatzaile edota elkarbizitza arduradunarengana iristen denean, txosten bat beteko da gertaeren berri utzi eta hauen segimendua egin ahal izateko.

#### **d.5) Planaren zabalpena**

Ikasleak dira gure helburu nagusia; horregatik hauek dira batez ere plan honen berri izan behar dutenak. Lehen esan bezala, tutoreek jakinarazi behar die plana zertan den eta zeintzuk diren arazo baten aurrean eman behar dituzten pausoak, baita horretarako dituzten baliabideak ere. Baina zama guztia ezin tutoreen gainean jarri, gainontzeko irakasleak ere inplikatu behar dira eta gaiaren garrantziaz jabetu.

Era berean, gurasoek plan honen berri ere izango dute tutoreen bitartez ( ikasturte hasieran izaten duten ikasgelako bilera horretarako baliatuz): planaren edukiaz informatzeaz gain, ikastetxearen elkarbizitzan eragina izan dezakeen edozein gertaeraren aurrean zer egin eta norengana jo dezaketen azalduko zaie urtero.

#### e) Jarduera protokoloak indarkeriaren aurrean

### ESKOLA JAZARPENA DAGOENEAN ERABILI BEHARREKO PROTOKOLOAREN EREDUA

Parte hartzea ondoko printzipio hauen arabera egingo da:

- **Babesa:** Lehen helburua eraso geldiarazi eta berriro ez sortzea da.
- **Esku-hartze eraginkor, azkar eta ez arinegi emandakoa:** Hautemandako indarkeriazko gertaeren aurrean beti esku hartu behar da, eraginkortasunez eta azkar, eta inoiz ere ez presaka. Hezkuntzak emaniko erantzunean bi hezkuntza-neurri motak sartuko dira: zuzentzaileak eta, hala behar denean, diziplinakoak.
- **Zuhurtasuna eta isilpekotasuna:** horrek esan nahi du inplikaturiko profesionalek soilik ezagutuko dituztela gertaerak, gorabeherak eta jarduerak.
- **Inplikaturiko ikasle guztiekin esku hartzea:** Hezkuntzako esku-hartzea inplikaturiko ikasle guztiei hedatuko zaie: biktima, jazarpenaren protagonistak eta lekukoak.
- **Zuhurtasuna eta sentikortasuna** esku-hartzeetan. Kontuan hartu behar da arazo honek sufrimendu handia eragiten duela familietan eta biktimengan.

Protokoloak, orokorrean, honako urrats hauek izango ditu:

<b>PARTE HARTZEAK</b>	<b>ARDURADUNA</b>
Gertaeren berri	Nornahi
Gertatutakoaren berri zuzendaritzari eman	Nornahi
Kasua ikertu eta lantzeko agindua: izendatu arduraduna eta babes neurriak.	Zuzendaritza
Gaia serioa eta egiaztatua bada. Kautelazko neurriak. Gaia ez bada larria eta, biktimarekin eta erasotzailearekin hitz egin ondoren, "argi" konpontzeko aukera badago, hobe da hala egitea gatazka larriagotu ez dadin.	Zuzendaritza edo arduraduna
Bermatu eta antolatu biktimaren babesa.	Irakasleak eta bestelako pertsonak.
Hitz egin balizko biktimarekin.	Arduraduna.
Hitz egin balizko erasotzailearekin	Arduraduna
Esku artean dugun informazioa aztertzea. Argitu ahalik eta lasterren kasuaren larritasuna eta zer den: <ul style="list-style-type: none"> <li>- jazarpena.</li> <li>- uneko eraso.</li> <li>- gatazka.</li> </ul>	Arduraduna.
Aztertu datuak eta erabaki gaia nola bideratu: ezarri esku-hartze plana. Esku hartze honetan egin daiteke:	Arduraduna eta orientatzailea
a.- Taldearekin tutoretza lana egin	Tutorea
b.- Lana biktimarekin	Tutorea Orientatzailea Beste espezialista batzuk
c.- Lana jazartzaileekin	Tutorea Orientatzailea Beste espezialista batzuk
d.- Informazioa familiei	Arduraduna eta zuzendaritza
Gertaeren kalifikazioa eta, hala behar denean, hezkuntza neurriak	Zuzendaritza
Informatu Ikuskapen Zerbitzukoak	Zuzendaritza
Errebisioak	Arduraduna

Protokloaren hasiera izango da Elkarbizitza Arduradunak idatziko duen "Gertaera Txostena" izeneko idazkia. Txosten hau burutuko da institutuko elkarbizitzan eragina izan duen edozein gertaerarengatik eta Elkarbizitza Arduradun, Ikasketa Buru edota beste irakasle baten parte hartzea suposatu egin duena. Gertaeraren deskribapena, hartutako neurriak, parte hartzaileen izenak eta getaeraren jarraipenean egindako interbentzioak agertuko dira.

Beraz, txosten horrek honako formatu hau izango du:

# GERTAERA TXOSTENA

DATA:

GERTAKARIAK ETA INPLIKATUAK:

GERTAKARIEN JARRAIPENA ETA DATA:

PARTEHARTZAILEAK:

## HEZKUNTZA ESPARRUAN GENERO-INDARKERIAKO KASU BAT GERTATZEN DENEAN JARDUTEKO GIDA.

Jarduna arautuko duten printzipioak honako hauek dira: balizko biktimaren babesa, esku-hartze eraginkor, azkar eta premiazkoa, nahiz eta ez arinegi emandakoa, eta isilpekotasunaren zuhurtasuna eta errespetua.

a) Jakiten bada edo oinarritutako susmoa bada ikasle neska batek Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe bateko ikasle mutil batengandik genero-indarkeria pairatu duela, ikastetxeko zuzendaritza jarduera-prozesuaren arduraduna izanen da eta prozesu hori koordinatuko du. Ikastetxe horretako irakasle batek har dezake bere gain koordinazio hori. Ikastetxeak zein inplikaturiko pertsonak Elkarbitza Aholkularitzaren eta/edo Hezkuntzako Ikuskapenaren aholkuak eta esku-hartzea izan ditzakete.

- **Prozesuaren jatorria.** Hezkuntza komunitateko kide heldu batek baldin badaki norbait jazarpena, larderia edo genero-indarkeria jasaten ari dela, biktima babestuko du eta egoera horren berri idatziz emanen dio ikastetxeko zuzendaritzari.
- **Informazioa biltzea.** Ikastetxeko zuzendaritzak tratu txarren gertaerak eta inguruabarrak argitzeko behar bezainbeste datu sistematikoki behatu eta bilduko ditu, baita tratu txar horren larritasuna ere. Eskura dagoen informazioa osatu eta ahalik eta zuhurtasun eta eraginkortasun handienarekin erkatuko da.
- **Informazioa aztertzea eta premiazko neurriak hartzea.** Zuzendaritzak orientatzailea eta kasu bakoitzean beharrezkoa den esku-hartzea aztertu eta baloratzeko ikastetxeko pertsona egoki eta eskudunak deituko ditu (oro har, elkarbitza batzordea) eta egokitzat jotako neurriak hartuko dituzte, hots, erasotutako emakumearen edo neskaren segurtasuna berehala bermatuko dutenak (baita erasotzailaren kontrako diziiplina neurriak ere). Neurri horiek, hala behar denean, balizko polizia-jarduerekin bateragarriak izanen dira.
- **Elkarrizketak.** Bana-banako elkarrizketak prestatu eta hitzartuko dira alde inplikatuekin eta haien familiekin, gertaeren gaineko informazioa ezagutu eta biltzeko, gertaera horiek familiek ezagutzen dituzten edo ez zehazteko, horri dagokionean zer neurri hartu den ezagutzeko eta ikastetxeak egindako jardueren berri gertaera horiek ukitzen dituztenei emateko (adingabeak direnean, zitazioetan ikaslea eta bere familia elkar daitezke, okerragorako ez dela izanen uste bada bederen). Era berean, izan ditzaketen iritziak eta egin ditzaketen ekarpenak bilduko dira eta adieraziko zaie gertaerak delitu izan daitezkeen edo ez eta, ondorioz, salatu daitezkeen edo ez.
- **Esku-hartze plana.** Informazio guztia bildu eta aztertu ondoren, erabakiko da genero-indarkeriazko kasu bat den edo ez baieztatzen den eta horrekin esku-hartze plana idatziko da. Planean neurri hauek bilduko dira: ikastetxeak inplikaturiko ikasleekin hartu beharreko neurriak, kaltetutako familiei eman beharreko informazioa, gainerako ikasleekin eta irakasle taldearekin egin beharrezkoa eta, hala behar denean, bestelako instantzia sozial, sanitario, judicial eta polizialei adierazi beharrezkoa.
- **Txostena.** Kasuaren koordinatzaileak ikastetxeko zuzendaritzara bidaliko du ikerketaren txosten idatzia eta hartan iradokiko du zein diren proposatutako neurri zuzentzaileak. Zuzendaritzak hezkuntza arloko neurriak hartuko ditu eta horren berri emanen die Ikuskapen Zerbitzukoiei.
- **Informazioa inplikaturiko familiei.** Behin esku-hartze plana idatzirik, inplikaturiko familiei aditzera emanen zaie beren semearekin edo alabarekin bana-banaka zer neurri hartu den eta, horrekin batera, familiakoak kaltetu ditzakeen antolaketa eta prebentzio arloetako gainerako neurrien berri emanen zaie.
- **Jarraipena eta Ebaluazioa.** Ikastetxeko zuzendaritzaren ardura da esku-hartze planean aurrez ikusitako neurriak gauzatea. Aldian-aldean behar den ikuskatzaileari aditzera emanen dio neurri horiek zenbateraino bete diren eta zein den inplikaturiko ikasleen egoera sozioedukatihoa.

b) Jakiten bada edo oinarritutako susmoa bada neska ikasle batek Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe bateko langile batengandik genero-indarkeria pairatu duela, horren berri emanen zaie ikastetxeko zuzendaritzakoiei eta azken honek berehala esanen die Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzukoiei. Hori guztia, diziiplina neurriak eta agintari judicial eskudunari nahitaez komunikatzeko beharra eragotzi gabe.

c) Hezkuntza elkarteko kideren batek baldin badaki edo oinarritutako susmoa bada neska ikasle batek familiakide batengandik edo Foru Komunitateko ikastetxe bateko langilea ez den batengandik genero-indarkeria pairatu duela,



berehala emanen die horren berri ikastetxeko zuzendaritzakoei eta azken horiek, egoera azterturik, gizarte zerbitzuei, fiskaltzakoei eta hezkuntzako ikuskapenekoei.

d) Hezkuntza elkarteko kideren batek baldin badaki edo oinarritutako susmoa baldin badu langile bat edo ikasle baten ama genero-indarkeria pairatzen ari dela, berehala emanen die horren berri gizarte zerbitzuei, fiskaltzakoei edo agintari judizial eskudunari, delitu-zantzuak daudela uste badu.

Goragoko a), b), c) eta d) ataletan ezarritakoaren arabera, premiak hala eskatzen badu, 112ra deituko da. Era berean, kasu guztietan, tratu txarrak daudela edo genero-indarkeria dagoela zehazten bada, biktimei edo, hala behar denean, haien familiakoei esanen zaie biktima modura hezkuntza esparruan zer zerbitzu eta prestazio izateko eskubidea duten edo informazio egokia emanen dien norbaitengana bidaliko dira.

Prozedura dokumentatzeko, eskola jazarpeneko kasuetan proposatutako dokumentuen antzekoak erabiliko dira.

## **IKASLEGO TRANSEXUALEN KASUAN DISKRIMINAZIO ETA JAZARPENEO BALIZKO EGOERAK DAUDENEAN HARTU BEHARREKO NEURRIAK**

Jaiotzean emandako sexua bat ez datorrenean ikaslearen identitatearekin (“transexualitate” hitzarekin ezagutzen den egoera), eta hori dela eta nolabaiteko tratu txar edo jazarpen bat jasoko balu ikasleren batek, edozein tratu txar edo jazarpen kasuetarako ezarritako prozedurak eta protokoloak erabiliko dira:

- a) Hezkuntza erkidegoko edozein kidek ikasle bat eskolan jazartzen dutela, eta indarkeria edo tratu txarrak jasaten dituela baldin badaki edo horren susmoak baldin baditu, behartuta dago tutoreari, ikastetxean orientazioaren ardura duenari edo zuzendaritza taldeari adieraztera. Nolanahi ere, informazioa jasotzen duenak beti horren berri emanen dio Zuzendaritzari eta azken honek eskola jazarpenerako protokoloa aktibatuko du.
- b) Transexualitate-egoeran dagoen ikasleari eraso fisiko edo psikologikorik, mesprezurik edo irainik eginez gero, ikastetxeko Zuzendaritzak esku hartuko du eta protokolo hori eta eskola jazarpenerako abiatuko ditu eta, orobat, Hezkuntzako Ikuskeren Zerbitzuari horren berri emanen dio.
- c) Familiak ikaslearen sexu-nortasunaren aurrean duen jarreragatik tratu txarren zantzuak hautematen direnean, tratu txar psikologiko, fisiko edo hitzeko kasuetan legez aurreikusitakoaren arabera jokatu da.

Edonola ere, diskriminazio eta eskola jazarpen mota honi aurrea hartzeko asmoarekin, ondoko neurri hauek hartuko dira institutuan:

1. Esleitutako sexua eta sentitutako sexuaren arteko desadostasuna dagoela komunikatu edo ezagutzera eman ondoren harrera egiteko plana:
  - a) Sexu-nortasuna eta sortzean esleitutako sexua bat ez badatoz, adin- gabe emantzipatugabearen legezko ordezkarietako edozeinek horren berri eman diezaioke ikastetxeari. Horretaz gainera, hezkuntzako profesionalen ardura izanen da transexualitate-egoera horretaz jabetu eta hari harrera egitea eta, orobat, hezkuntzako orientazio-taldeari eta zuzendaritzari adingabeak erakusten duen edozein zantzuren berri ematea, sexu-nortasuna eta sortzean esleitutako sexua bat ez etortzeari dagokionez.
  - b) Kointzidentziarik eza komunikatu ondoren, Zuzendaritza Taldeak in- formazio horren berri emanen die ikaslearen ikastetxeko irakasleei eta orientazioko arduradunari, hezkuntza premiak identifikatzeko eta sentsibilizazioan, informazioan eta prestakuntzan beharrezko neurriak hartzeko, adingabea ikastetxean osoki integratzen dela eta ikaslearen sexu-nortasuna errespetatzen dela ziurtatzeko. Hori, egoera jendartean ezagutzea nahi denean. Aldiz, ikaslearen osasun sozioemotionala kontuan izanez adingabearen intimitatea gorde nahi izanez gero, helburu horrekin bat jokatu da.
  - c) Era berean, ikastetxeko edozein irakasle ohartzen bada ikasle adingabe batek sortzean esleitu zioten sexuarekin bat ez datorren sexu-nortasuna agerian uzten duten jokabideak behin eta berriz eta luze egiten dituela bere legezko ordezkariak deus ere hauteman gabe, Zuzendaritza Taldeari egoera horren berri emanen dio. Zuzendaritzak adingabearen legezko ordezkariari ikastetxeko irakasle tutorearekin eta hezkuntzako orientazioko arduradunarekin bilera bat egiteko proposatuko die eta hartan hautemandako gertaeren gaineko argibideak emanen dizkie.
  - d) Kasua identifikatu eta komunikatzeko modua edozein izanik ere, Zuzendaritzak adingabearen legezko ordezkariari ikastetxeko irakasle tutorearekin eta hezkuntzako orientazioko arduradunarekin bilera bat egitea proposatuko die, hezkuntzan edo hezkuntzatik kanpo (zerbitzu instituzionalak, transexualitate-egoeran dauden adingabeen familien erakundeak eta abar) eskura dauden baliabideen berri emateko. Bilera horretan prozesu bat abiatzeko aukera dagoela esanen zaie, hezkuntza premiak identifikatzeko eta ikastetxean egin beharreko balizko jarduketak adostuta ezartzeko eta, orobat, Hezkuntza Departamentuko Bizikidetzak Aholkularitzak esku hartzea bidezkoa denetz baloratuko da.
  - e) Adingabearen hezkuntza premiak identifikatzerakoan ikaslearen gara- pen pertsonal eta sozialean sexu-nortasunarekin zerikusia duen ara- zo edo zailtasunen bat hautematen balitz eta hezkuntza sistematik kanpoko beste baliabide espezializatu batzuk beharko balira, baliabide horien gaineko argibideak emanen litzaizkieke legezko ordezkariari.
  - f) Komunikazio eta identifikazio prozesuetan adingabearen intimitaterako eskubidea bermatuko da eta transexualitatearen komunikazioa, elkarrizketen edukia eta ekarritako informazioaren erabateko konfidentzialtasuna gordeko da.

## 2. Antolaketa-neurriak:

- a) Adingabeak erregistroko izena zuzendu gabe badu, ikastetxeko irakasleei eta administrazioko eta zerbitzuetako langileei adieraziko zaie transexualitate-egoeran dagoen ikaslea hark aukeratutako izenaz deitu behar dutela edo, emantzipatuta ez badago edo aski heldua ez bada, bere legezko ordezkarietako baten batek adierazitakoaz. Izen hori ikastetxean egiten diren eskola jarduera eta eskolaz kanpoko jarduera guztietan erabiltzeko duen eskubidea errespetatuko da, bai eta azterketetan ere.
- b) Hezkuntza Administrazioako datu-baseetan erregistroko nortasun- datuak mantentzea galarazi gabe, jendaurrean jartzen den dokumenta- zio administratiboa eta ikasleari igorri beharrekoa (ikasgelako zerrendak, kalifikazioen informazio-buletina, ikasle txartela, etab.) egokituko dira. Aukeratutako izena dokumentazio horretan agertuko da eta, oro- bat, gainerako ikasleen izena azaltzen den modu berean azalduko da.  
Adingabeak erregistroko izena zuzenduta badu, izen horrekin bat da- torren titulazioa emanen da, edozein izanik ere historial akademikoan agertzen den izena.
- c) Ikaslearen irudi fisikoa errespetatuko eta errespetaraziko da, bai eta haren jantzia aske aukeratzeko eskubidea ere.
- d) Sexuaz bereizitako jarduerak egiten badira, ikasleak sentitutako sexua kontuan izanen da.
- e) Ikastetxean sexuaren araberrako instalazioak badaude, hala nola ko- munak eta aldagelak, gainerako ikasleekin gertatzen den bezala, transexualitate-egoeran dagoen adingabeari bermatuko zaio berak sentitutako sexuari dagozkion instalazioetan sartzea eta haiek erabiltzea izanen duela.
- f) Neurri horiek gauzatzeko moduari dagokionez, adingabeari esan eta kontsultatuko zaio zein den neurri horiek hartzeko modurik onena. Oro- bat, kontuan izanen da pertsona horrek zer pentsatzen duen eta erosoan eta babestuen nola sentituko den. Banaka eta/edo taldean hausnarketa neurritzko eta gidatua egiteko espazio eta denborak beharko balira, ikastetxean prestatuko dira.
- g) Neurri horiek hartzeko ez da alde aurretik inongo txosten mediko edo psikologikorik beharko.
- h) Adingabe emantzipatugabearen legezko ordezkarietako baten bat ez badago ados aurreko neurri horiekin, Zuzendaritzak gizarte zerbitzuei jakinaraziko die transexualitate-egoeran dagoen adingabearen kasuari heltzeko moduan desadostasuna dagoela.
- i) Hezkuntza Departamentuari esku-hartzea, aholkularitza edo prestakuntza eska dakizkioke (Bizikidetzaren Aholkularitzaren bitartez).
- j) Komeni da irakasle taldearekin eta behar den ikastaldeko tutorearekin alde aurretik bilera egitea, ikaslearen egoeraren berri emateko, harrera gaur egungo nortasunarekin prestatzeko, eta haren integrazioa errazteko eta balizko gatazkak edo homofobiagatiko eta transfobiagatiko eskola jazarpena saihesteko gomendioak transmititzeko.

3. Prestakuntza-neurriak: Haur eta gazteen transexualitatea ezagutzan prestakuntza sustatuko da irakasle nahiz eskola komunitate gainerako pertsonen artean; era berean, ikasgelan ere egoera horren ezagutza emateko jarduerak planteatuko dira gaian adituak diren pertsonen aholkularitzaren bitartez.

## 5. ELKARBIZITZA ARAUDIA

---

### 5.1. HITZAURREA

Barne araudi honek hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak aipatzen dituen helburuak ditu oinarri: ikasleen nortasunaren eta ahalmenen erabateko garapena lortzea, funtsezko eskubideen eta askatasunen errespetuan hezte, eta eskubide eta aukeren berdintasunean, baita norberaren erantzukizunean eta tolerantziaren eta askatasunaren erabileran ere, elkarbizitzaren printzipio demokratikoen barrenean.

Barne araudi hau elkarbizitza kudeatzeko osoko eredu batean dago oinarritua. Eredu horrek hezkuntza komunitateko eragile guztien parte-hartzea sustatzen du, elkarbizitzarako giro positiboa eratu eta mantendu nahi du, auzitan dauden alderdien arteko komunikazioa sustatzen du eta hezkuntza neurriak eta

eragindako kaltea konpontzeko neurriak aplikatzea aurreikusten du, hartutako portaeraren beharrezko ondorio gisa.

Helburu horiek guztiak hezkuntzako etapa guztietan zehar zehaztu behar dira eta ikastetxearen hezkuntza proiektuan planifikatu behar dira.

## **5.2. I. KAPITULUA. Xedapen orokorrak. Oinarrizko printzipioak**

Barne araudi honen xedea da ikasleen eskubide eta eginbeharrak zehaztea, ikastetxeetako elkarbizitza arautzea eta familiek beren seme-alaben hezkuntza prozesuan parte hartzeko esparrua ezartzea, eskola eremuari dagokionez.

### **5.2.1. Oinarrizko printzipioak.**

1. Hona hemen portaera desegokiak hartzen direnean aplikatu behar diren hezkuntza neurrien eta ikasleen eskubide eta eginbeharren esparru arau-emaielaren oinarrizko printzipioak, kalitatezko hezkuntza lortzeko:

a) Ikastetxeetan irakaskuntza-ikaskuntza prozesua faboratzen duen giroa eta harreman positiboetarako giroa ezarri beharra, erantzukizunerako hezkuntzaren kontzeptuan oinarrituta.

b) Eskola elkarte osoaren parte-hartzea eta konpromisoa.

c) Gatazkei aurrea hartzea eta bake bidez konpontzea.

d) Pertsona guztien benetako berdintasuna zailtzen duten traba guztiak kentzea eta emakumezkoen eta gizonezkoen eskubideen eta aukeren erabateko berdintasuna sustatzea.

e) Tratu berdinen printzipioa sartzea, jokabide sexistengatik, arrazistengatik, xenofoboengatik edo erlijioaren kontrakoengatik edo horiei loturiko estereotipo sozialetan oinarritutako jokabideengatik bazterkeria edo desberdintasunak izatea saihestuz.

2. Eskola elkarteko kide guztiei dagokie ikastetxeetako elkarbizitza bermatzeko behar diren neurriak hartzea eta horretaz arduratzea, hala nola ikasleen eskubideak zuzen baliatzen direla eta eginbeharrak zehatz-mehatz betetzen direla bermatzeko, foru dekretu honetan ezarritakoari jarraikiz. Hori helburu:

a) Ikastetxeko zuzendaritzak giro egokia bultzatuko du ikasteko, ikasleek gaitasunak eskuratzeko eta ikastetxean elkarren ondoan bizitzeko, eta gatazkak sortzen direnean, auzia elkarriketaren bidez, akordioaren bidez, bitartekaritzaren bidez edo gatazkak bake bidez konpontzeko beste teknika batzuen bidez konpontzen saiatuko da. Bestalde, indarreko legediaren arabera bidezko diren hezkuntza neurriak ezarriko dizkie ikasleei.

b) Eskola Kontseiluak eta klaustroak behar diren neurriak eta ekimenak proposatuko dituzte ikastetxean elkarbizitza sustatzeko eta horrelakoak garatzen lagunduko dute.

c) Eskola Kontseiluak diziplina gatazken ebazpenak ezagutu beharko ditu, indarreko legediaren arabera izatea begiratuko du eta, erreklamazioak aurkeztuz gero, berrikusten ahalko ditu.

d) Klaustroak ezagutu beharko du, orobat, diziplina gatazken ebazpena eta zuzenketa neurrien ezarpena, eta indarreko araudiaren arabekoak izan daitezen begiratuko du.

e) Tutoreek, taldekako eta banakako tutoretzaren bidez, bermatuko dute ikasleak integratzeko eta elkarbizitza hobetzeko estrategia eta jarduerak garatzen direla, baita familiekiko lankidetzaren ere, elkarrizketen, bileren edo egoki iruditzen zaizkien beste baliabide batzuen bitartez.

f) Irakasleek ikastetxeko jarduerak errespetuzko giro batean garatzen lagunduko dute, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak eta gaitasunak eskuratzeko prozesua errazteko ikasleei, eta horretarako beren agintea erabiliko dute gelan eta ikastetxean. Era berean, sortzen diren diziplina gatazketan edo arazoetan lehenengo esku-hartzearen arduraduna izanen da eta konpontzeko behar diren neurriak aplikatuko ditu bere erantzukizunaren eremuan.

g) Ikasleek erantzukizunez jokatu dute beren eskubideak erabili eta eginbeharrak betetzeko orduan.

h) Gurasoek, beren seme-alaben lehenengo hezitzaile nagusiak direnez, behar diren neurriak hartu beharko dituzte familia giroan, irakasleen agintearen aitortzea sustatu beharko dute seme-alaben artean, eta hezkuntza prozesua egokia izan dadin lagundu beharko dute, ikastetxeak hartzen dituen erabakiak errespetatuz.

3. Ikastetxe hau D eredukoa den aldetik, araudi honek beharrezkoa ikusten du euskararen erabilera bermatzea eta bultzatzea. Euskara institutuko hizkuntza behikularra da.

### **5.3. II. KAPITULUA. Familien parte-hartzea**

#### **5.3.1. Familien inplikazioa eta konpromisoa.**

Beren seme-alaben hezkuntzaren arduradun nagusiak diren aldetik, aitei, amei edo legezko ordezkariari dagokie behar diren neurriak hartzea, behar den laguntza eskatzea eta ikastetxeari laguntzea hezkuntza prozesua egoki joan dadin. Gainera, beren seme-alabak eskoletara eta programatzen diren jardueretara joatearen ardura izanen dute, eta baliabide guztiak jarriko dituzte etxean estudiantu eta irakasleek agintzen dituzten etxeko lan guztiak egin ditzaten.

#### **5.3.2. Aiten, amen edo legezko ordezkarien eskubideak.**

Aitek, amek edo legezko ordezkariak, beren seme-alaben hezkuntzari dagokionez, uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 4.1 artikuluan aitortutako eskubideak dituzte.

Eskubide hauek honako alderdi hauetan gauzatzen dira:

a) Seme-alaben ikaskuntza prozesuaren eta haien gizarte eta hezkuntzako integrazioari buruzko informazioa jasotzea.

Ondorio horietarako, ikastetxeek prozesu horiei buruz behar den informazio guztia emanen diete gurasoei edo legezko ordezkariari, eta, bizikidetzaren gatazken kasuan, ukituak gertatzen diren adingabeen legezko ordezkariari ere informazioa emanen zaie edo informazioa eskuratzeko aukera eskainiko zaie, babestu behar diren datuak eta interesak salbuetsita, ahalik eta lasterren (beranduenez, hiru eskola egun igaro ondoren gertaerak ezagutzen direnetik).

b) Ikasturtearen hasieratik helburuak, edukiak, ebaluazio prozedurak eta ebaluatu, kalifikatu eta aurrera egiteko irizpideak ezagutzea eta egiten dituzten erreklamazioei buruzko informazioa eta argibideak jasotzea.

c) Ikastetxearen Elkarbizitza Planaren neurrietatik beraiei dagozkienak ezagutzea, batez ere eskolako bitartekaritza gatazkak konpontzeko baliabide gisa erabiltzekoa, eta, halakorik bada, parte hartzea proposatzen diren neurrien eta erabakien diseinuan, eta egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkeztea, indarreko araudiari jarraikiz.

d) Beren seme-alaben orientazio akademikoaren edo profesionalaren gaineko erabakiak hartzen direnean, entzuna izatea, aurreko puntuetan adierazitako parte-hartzea deusetan galarazi gabe.

e) Ikastetxearen antolaketan, gobernuan eta funtzionamenduaren balorazioan parte hartzea, Eskola Kontseiluan edo ikastetxeko gurasoen elkarteetan parte hartuz.

### **5.3.3. Gurasoen edo legezko ordezkarien erantzukizunak.**

3.1. Aitek, amek edo legezko ordezkariak, beren seme-alaben hezkuntzaren arduradun nagusiak diren aldetik, uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 4.2 artikuluan ezarritako eginbeharrak dituzte.

3.2. Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza arloko administrazioak eta kasuan kasuko ikastetxeak aurreko idatz-zatian adierazitako erantzukizunak betetzen direla begiratuko dute, eta bereziki, honako hauek betetzen direla begiratuko dute:

a) Beren seme-alaben hezkuntza prozesuaren bilakaera ezagutzea, ikasketetara animatzea eta errendimendua hobetzeko parte-hartze aktiboa izatea, eta, hala badagokio, portaera batzuk zuzendu behar badira, ikastetxearekin lankidetzan aritzea.

b) Ikastetxearekin zuzeneko eta etengabeko harreman arina izatea eta erraztea.

c) Beren seme-alaben asistentzia, aprobetxamendua eta parte-hartzea bermatzen dituzten neurriak, baliabide materialak eta baldintzak hartzea.

d) Beren seme-alabak ikastetxera eraman eta hartzeko orduan, puntualak izatea.

e) Irakasleen agintea eta ikastetxeko arauak errespetatzea eta beren seme-alabei hori errespetaraztea.

f) Eskola Komunitateko kide guztiek dagozkien eskubide eta eginbeharrak erabat erabili ahal izateko eta errespetua sustatzeko lanean laguntzea.

g) Ikastetxearen berezko izaera ezagutzea eta ikastetxearen hezkuntza proiektua errespetatzea eta seme-alabei errespetaraztea.

## **5.4. III. KAPITULUA. Ikasleen eskubideak eta eginbeharrak**

1. Ikasleen eskubide eta eginbeharren printzipio orokorrak.

a. Ikasle guztiek eskubide eta eginbehar berberak dituzte. Ezberdintasun bakarrak adinaren arabera zehaztuz batzuk izanen dira.

b. Eskolatzeko-aldian, ikaslea bere eginbeharrez arduratuko da, erantzukizunez, eta bere eskubideak ezagutu eta erabiltzeko orduan, beste pertsonak errespetatu beharko ditu, izan ere, erantzukizun hori foru dekretu honen erreferentzia nagusietako bat da.

c. Espainiako Konstituzioan eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoan ezarritako balio eta printzipioetan hezteko, ikasleek arau horiek ezagutzeko eskubidea eta errespetatzeko beharra dute.

d. Eskubide bat erabiltzeak, banaka edo taldeka, berarekin dakar besteen eskubideak errespetatu beharra.

e. Ikastetxeko zuzendaritzak, irakasleek eta eskola elkarteko gainerako kideek bermatu behar dute eskubide eta eginbehar horiek testuinguru egokian erabiltzen direla.

#### **5.4.1. IKASLEEN ESKUBIDEAK.**

2. Ikasleek honako oinarrizko eskubide hauek dituzte:

**a) Funtsezko eskubide eta askatasunen errespetuan eta elkarbizitzaren printzipio demokratikoetan oinarritutako prestakuntza jasotzeko eskubidea. Eskubide hori honako alderdi hauetan gauzatzen da:**

a.1) Tolerantziaren eta askatasunaren erabileran oinarritutako hezkuntza, elkarbizitzaren printzipio demokratikoen barrenean, hala nola gatazkei aurrea hartu eta bake bidez konpontzeko jokabidean oinarritutako hezkuntza.

a.2) Espainiako Konstituzioan eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoan ezarritako balio eta printzipioetan oinarritutako hezkuntza.

a.3) Giza Eskubideen tratatu eta deklarazio unibertsaletan aitortutako printzipio eta eskubideetan, herritar demokratikoen substratua osatzen duten balio erkideetan eta pertsona guztien duintasunaren errespetuan -nolakoa den aintzat hartu gabe- oinarritutako hezkuntza.

a.4) Foru dekretu honetan eta indarreko legedian ikasleei eta eskola elkarteko gainerako kideei aitortzen zaizkien eskubide eta eginbeharretan oinarritutako hezkuntza.

**b) Osoko prestakuntza jasotzeko eskubidea, bere nortasuna erabat garatzen laguntzen duena. Eskubide hori honako alderdi hauetan gauzatzen da:**

b.1) Oinarrizko gaitasunetarako hezkuntza, garapen pertsonala eta gizarte integrazioa ahalbidetzeko.

b.2) Curriculumaren arlo guztietan ikasleak kalitatezko irizpideekin hezten dituen irakaskuntza.

b.3) Prestakuntza interes ezberdinetara eta ikasleen ahalmen ezberdinetara egokitutako hezkuntza.

b.4) Hezkuntza emozionala, pertsonen arteko harremanak egoki bideratzen laguntzen duena.

b.5) Zientzian eta didaktikaren oinarrizko printzipioetan oinarritutako irakaskuntza jardueren garapena.

b.6) Prestakuntza etiko eta morala, bake, elkarkidetzeta eta herrien arteko elkartasunean oinarritutakoa

b.7) Eskola eta lanbide orientazioa eta orientazio pertsonala, bakoitzak bere gaitasun, ahalmen eta interesen arabera erabakiak hartzea ahalbidetzen duena.

b.8) Nafarroako Foru Komunitatearen hizkuntza aniztasunaren errespeturako prestakuntza.

b.9), Euskararen ezagupena eta erabilpena ikastetxeko esparru eta jarduera guztietan eta, era berean, Euskal Herriaren kulturaren ezagupena ere.

### **c) Errespetatua izateko eskubidea.**

Ikasleek eskubidea dute beren nortasuna, osotasuna eta duintasun pertsonala errespetatua izateko, baita beren kontzientzia askatasuna eta beren sinesmen erlijioso eta moralak ere, eskubide horiek Nazio Batuen Biltzar Orokorrak 1948ko abenduaren 10ean hartutako 217 A (III) Ebazpenaren bidez onartu zen Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean eta Espainiako Konstituzioan aitortuak baitaude. Eskubide hori honako alderdi hauetan gauzatzen da:

c.1) Intimitatearen errespetua.

c.2) Kontzientzia askatasunaren errespetua, hala nola norberaren sinesmen ideologiko, erlijioso eta moralen errespetua.

c.3) Pertsona guztien aniztasunaren eta desberdintasunaren errespetua, estereotipoetatik eta kanpoko beste baldintza batzuetatik haratago.

c.4) Eraso fisikoen, emozionalen, moralen edo bestelakoen kontrako babesa.

c.5) Elkarbizitza positiboko giroa, jarduerak normal egiteko aukera ematen duena eta errespetua eta elkartasuna sustatzen dituena.

c.6) Konfidentziasuna datu pertsonalen tratamenduan. Irakaskuntzaren eginkizunetarako beharrezkoak izateagatik ikastetxeak biltzen dituen ikasleen datu pertsonalen tratamenduan datuen segurtasuna eta konfidentziasuna bermatzen dituzten arau tekniko eta antolaketakoak aplikatuko dira. Datuak lagatzeari dagokionez, datu pertsonalen babesari buruzko legediari jarraikiko zaio. Nolanahi ere, ikastetxeak eskatzen duen informazioa irakaskuntza eta orientazio lanetarako behar-beharrezkoa dena izanen da, eta hezkuntzatik kanpoko beste erabilera batzuetarako ezin izanen da erabili, non ez dagoen familiaren edo ikaslearen, adinez nagusia bada, berariazko baimena.

### **d) Objektibotasunez baloratua izateko eskubidea.**

Ikasleek beren dedikazioa, ahalegina eta errendimendua objektibotasunez baloratuak izateko eskubidea dute. Eskubide hori honako alderdi hauetan gauzatzen da:

d.1) Programazio didaktikoen oinarrizko alderdiak ezagutzea: helburuak, edukiak, ebaluazio prozedurak eta ebaluaziorako, kalifikaziorako eta aurrera egiteko irizpideak. Atal honetan esandakoari jarraituz, ikasleak, gai edo jakintza-arlo desberdinetan emaitza positiboak izan ditzan, eskubidea du eskatuko diren gutxieneko helburu eta edukiak zein aplikatuko diren ebaluazio irizpideak ezagutu ditzan ikasturte hasieratik. Horretarako, Departamentu didaktikoen programazioan aipatutako puntuak bildu eta ikasleei ezagutarazi egin beharko ditu ikasturte hasieran egingo den arloaren aurkezpenean.

d.2) Bere ikaskuntza prozesuaren bilakaeraren gaineko informazioa jasotzea, baita horren arabera hartzen diren erabakien berri ere. Honen harira, bere kalifikazioarekin zerikusirik duten azterketa edo froga idatzi guztiak, zuzenduta eta kalifikatuta, ikusteko eskubidea dauka edozein ikasle. Ikasleek ikusi ondoren, Departamentu Didaktikoen eskuetan geldituko dira azterketa eta frogak. Ebaluazio tresnak gordetzeko gutxieneko epea ikasturte hasierako Jarraibideetan ezartzen dena izango da, eta horren ondoren Departamentu Didaktikoen azterketa eta froga horiek botatzeko ahalmena izango dute.



d.3) Lortutako kalifikazioen eta hartutako erabakien gaineko argibideak eskatu eta erreklamazioak aurkezteko aukera izatea, hala ebaluazio partzialetan nola azkenekoetan: ikasleek, gurasoek zein tutoreek, irakasleei eskola jardueren edota kalifikazioen gaineko argibideak eskatzeko eskubidea izateaz gain, ebaluazio horien gaineko erreklamazioak ere aurkez ditzakete ondoko prozesu honi jarraituz:

### **Kalifikazioen berrikusketa eskaerak eta erreklamazioak**

Edozein kexa, lehenbizi, dagokion irakasleari zuzenduta egongo da. Ikaslea ez balitz konforme geldituko, edo dagokion irakaslearengana jotzerik izango ez balu edo nahiko ez balu, ondoko prozeduraren urratsen bat segitu beharko luke :

#### **a) Ebaluaketa partzialak**

Ebaluazio partzialen azterketen berrikusketa egiteko, ikasleen guraso edo legezko tutoreek dagokion eskaera egin beharko dute Ikastetxeko Bulegoan, emaitzak Educan argitaratu eta ondorengo bi egunetan. Eskaera orria bulego horretan bertan izango da eskuragarri, hala nola institutuaren web orrian.

Azterketa partzialen berrikusketa lehen aipatu epearen ondorengo bost egun baliodunetara mugatuko da -zerbitzuaren beharrek posible egiten badute-, edo ahalik eta lasterren.

Berrikusketa interesdun eta irakasgaia ematen duen irakaslearen arteko elkarrizketa pertsonala izango da, xede horretarako ezarriko den ordutegian.

Ebaluaketa prozesuan erabilitako dokumentuen kopia eskuratzeko asmorik izanez gero, berrikusketa prozesuan bertan adierazi beharko da, ikastetxeko Bulegoan eta web orrian eskuragarri izango den eskaera orriaren bidez.

Kopia hauek eskuratu ahal izateko ikastetxeak ezarritako tasa ordaindu beharko da, 0,20 € orrialde bakoitzeko.

Kalifikazio partzialen inguruko erreklamazio aukera ikastetxean bertan geratuko da.

#### **b) Behin betiko ebaluaketa**

##### **- DBH eta Batxilergoko 1. kurtsoa.**

Irakasleen argibideak jaso ondoren, ikasleak edo bere familiak ados ez badaude Batxilergoko 1. mailako edo DBHko irakaskuntzetan lortutako azken kalifikazioarekin, hurrengo mailara igarotzeaz hartutako erabakiarekin edo DBHko titulazioaren gaineko erabakiarekin, erreklamazioak egiten ahaliko dituzte, idatziz, ikastetxeko zuzendaritzan desadostasuna justifikatzen duten alegazioak aurkeztuz, bi egun balioduneko epean, ikastetxeak azken kalifikazioaren, hurrengo mailara igarotzeaz erabakiaren edo DBHko titulazioaren gaineko erabakiaren komunikazio ofiziala egiteko ezarritako egunetik hasita.

Erreklamazioa jaso ondoren, ikastetxeko zuzendariak erreklamazio espediente bat irekiko du.

#### **Modulu, eremu, proiektu edo materia baten azken kalifikazioaren aurkako erreklamazioa.**

1. Batxilergoko 1. mailako edo DBHko modulu, eremu, proiektu edo materia baten azken kalifikazioaren aurkako erreklamazioa jaso ondoren, zuzendariak koordinazio didaktikoko departamentu erantzulari (edo, hura ezean, zera emateko erantzukizuna duten ikastetxeko irakasle guztiei, erreklamazioa jaso

du(t)ena(k) salbu) eskatuko die erreklamazioa azter dezaten, erreklamazioa aurkeztu zen egunaren hurrengo egun baliodunean, aurkeztutako alegazioak kontuan hartuta, eta horren gaineko txostena egin dezaten, berraztertu den azken kalifikazioa aldatzeko edo berresteko hartutako erabaki arrazoitua izanen duena. Txostena egiteko, kontuan hartu beharko da, bereziki, 49/2013 Foru Aginduaren 3. artikuluan xedatutakoa:

*“Kalifikazioen gaineko erreklamazioak ebazteko, egiaztatu beharko da irakasleek ikaslea ebaluatzeko prozesuan egindako jarduketak eta irakaskuntza programazioan ezarritakoa bat datozela, bereziki honako honi dagokionez:*

*a) Ikaslea ebaluatzeko aplikatu diren prozedurak eta tresnak egokiak izatea, programazioan adierazitakoaren arabera.*

*b) Ikaslearen ikaskuntza prozesua ebaluatzeko erabili diren edukiak eta irizpideak egokiak izatea, programazioan bildutakoen arabera.*

*c) Gutxieneko eskakizunak lortzea.*

*d) Programazioan eta ebaluaziorako tresnetan ikaslea kalifikatzeko ezarrita dauden irizpideak behar bezala aplikatzea.”*

Ikastetxeko zuzendaritzak txostenaren kopia emanen dio ikasleari edo, hala badagokio, guraso bati edo legezko ordezkariari, ahalik eta epe eta modu laburrenean. Honela bukaera emanen zaio ikastetxean erreklamatzeko prozesuari.

2. Ikastetxean erreklamatzeko prozesua agorturik, bi egun balioduneko epean, aipatu kopia jasotzen duen egunetik hasita, ikasleak edo, hala badagokio, guraso batek edo legezko ordezkariak zuzendaritzari Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak erreklamazioa azter dezala eskatzen ahalko dio idatziz.

3. Ikastetxeko zuzendaritzak Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuari igorriko dio erreklamazio espedientea, bi egun balioduneko epean, familiak eskaera egiten duenetik hasita.

4. Koordinazio didaktikoko departamentuan irakasle bakarra aritzen bada, departamentu hori existitzen ez bada edo ikastetxean erreklamazioaren modulu, eremu, proiektu edo material irakasle bakarra aritzen bada, erreklamazioa eta dagokion espedientea hasieratik igorriko zaizkio Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuari, aurreko idatz-zatian ezarritako moduan.

5. Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak, espedientea aztertuta eta, besteak beste, foru agindu honen 3. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, txosten bat emanen du. Txosten hori zuzendari nagusi eskudunari igorriko zaio, erreklamazioaren gaineko ebazpena eman dezan.

6. Zuzendari nagusiaren ebazpena hamar egun balioduneko epean emanen da, gehienez ere, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak espedientea jasotzen duenetik hasita. Ebazpen horrek bide administratiboa amaituko du.

**Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan hurrengo mailara ez igarotzeko edo titulazioa ez emateko erabakiaren aurkako erreklamazioa.**

1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan hurrengo mailara ez igarotzeko edo titulazioa ez emateko erabakiaren aurkako erreklamazioa jaso ondoren, zuzendariak irakasleen taldeari eskatuko dio erreklamazioa azter dezaten bilera berezi batean, erreklamazioa aurkeztu zen egunaren hurrengo egun baliodunean, aurkeztutako alegazioak kontuan hartuta.

2. Tutoreak irakasleen taldearen gogoetak eta berrikusten den erabakia berresteko edo aldatzeko delibero arrazoitua jasoko ditu akta batean. Ikastetxeko zuzendaritzak txostenaren kopia emanen dio familiari, ahalik eta epe eta modu laburrenean. Honela bukaera emanen zaio ikastetxean erreklamatzeko prozesuari.

3. Ikastetxean erreklamatzeko prozesua agorturik, bi egun balioduneko epean, aipatu kopia jasotzen den egunetik hasita, zuzendaritzari Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak erreklamazioa azter dezala eskatzen ahalko zaio idatziz. Erreklamazioa 49/2013 Foru Aginduaren 7. artikuluko 4. idatz-zatian eta ondokoetan ezarritako moduan tramitatuko da; alegia:

*“Ikastetxeko zuzendaritzak Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuari igorriko dio erreklamazio espedientea, bi egun balioduneko epean, familiak eskaera egiten duenetik hasita.*

*Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak, espedienteaz aztertuta, txosten bat emanen du. Txosten hori zuzendari nagusi eskudunari igorriko zaio, erreklamazioaren gaineko ebazpena eman dezan.*

*Zuzendari nagusiaren ebazpena hamar egun balioduneko epean emanen da, gehienez ere, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak espedienteaz jasotzen duenetik hasita. Ebazpen horrek bide administratiboa amaituko du.”*

#### **DBHn lortutako batez besteko azken kalifikazioaren aurkako erreklamazioa.**

1. DBHn lortutako batez besteko azken kalifikazioaren aurka aurkeztutako erreklamazioa zuzendaritzak aztertuko du, aurkeztutako alegazioak kontuan hartuta, eta horren gaineko txostena eginen du, berraztertutako azken kalifikazioa aldatzeko edo berresteko hartutako erabaki arrazoitua izanen duena. Txosten horren kopia emanen zaio ikasleari edo, hala badagokio, guraso bati edo legezko ordezkariari, ahalik eta epe eta modu laburrenean. Honela bukaera emanen zaio ikastetxean erreklamatzeko prozesuari.

2. Ikastetxean erreklamatzeko prozesua agorturik, bi egun balioduneko epean, aipatu kopia jasotzen den egunetik hasita, zuzendaritzari Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak erreklamazioa azter dezala eskatzen ahalko zaio idatziz. Erreklamazioa 49/2013 Foru Aginduaren 7. artikuluko 4. idatz-zatian eta ondokoetan ezarritako moduan tramitatuko da; alegia:

*“Ikastetxeko zuzendaritzak Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuari igorriko dio erreklamazio espedienteaz, bi egun balioduneko epean, familiak eskaera egiten duenetik hasita.*

*Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak, espedienteaz aztertuta, txosten bat emanen du. Txosten hori zuzendari nagusi eskudunari igorriko zaio, erreklamazioaren gaineko ebazpena eman dezan.*

*Zuzendari nagusiaren ebazpena hamar egun balioduneko epean emanen da, gehienez ere, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak espedienteaz jasotzen duenetik hasita. Ebazpen horrek bide administratiboa amaituko du.”*

#### **- Batxilergoko 2. kurtsoa:**

1. Irakasleen argibideak jaso ondoren, ikasleak edo bere familiak ados ez badaude Batxilergoko 2. mailan lortutako azken kalifikazioarekin, erreklamazioa egiten ahalko dute, idatziz, ikastetxeko zuzendaritzan desadostasuna justifikatzen duten alegazioak aurkeztuz. Ikastetxeak azken kalifikazioaren komunikazio ofiziala egiteko ezarritako egunean edo hurrengo egun baliodunean egin beharko da erreklamazioa.

2. Erreklamazioa jaso ondoren, zuzendariak erreklamazio espediente bat irekiko du.

3. Zuzendariak materiaren erantzukizuna duen koordinazio didaktikoko departamentuari (erreklamazioa jaso du(t)en irakaslea(k) salbu) eskatuko dio erreklamazioa azter dezan, erreklamazioa aurkeztu zen egunaren hurrengo egun baliodunean, aurkeztutako alegazioak kontuan hartuta, eta horren gaineko txostena egin dezan, berraztertu den azken kalifikazioa aldatzeko edo berresteko hartutako erabaki arrazoitua izanzen duena. Txostena egiteko, kontuan hartu beharko da, bereziki, 49/2013 Foru Aginduaren 3. artikuluan xedatutakoa:

*“Kalifikazioen gaineko erreklamazioak ebazteko, egiaztatu beharko da irakasleek ikaslea ebaluatzeko prozesuan egindako jarduketak eta irakaskuntza programazioan ezarritakoa bat datozela, bereziki honako honi dagokionez:*

*a) Ikaslea ebaluatzeko aplikatu diren prozedurak eta tresnak egokiak izatea, programazioan adierazitakoaren arabera.*

*b) Ikaslearen ikaskuntza prozesua ebaluatzeko erabili diren edukiak eta irizpideak egokiak izatea, programazioan bildutakoaren arabera.*

*c) Gutxieneko eskakizunak lortzea.*

*d) Programazioan eta ebaluaziorako tresnetan ikaslea kalifikatzeko ezarrita dauden irizpideak behar bezala aplikatzea.”*

Egun berean, ikastetxeko zuzendaritzak txostenaren kopia emanen dio ikasleari edo, hala badagokio, guraso bati edo legezko ordezkariari. Honela bukaera emanen zaio ikastetxean erreklamatzeko prozesuari.

4. Ikastetxean erreklamatzeko prozesua agorturik, bi egun balioduneko epean, aipatu kopia jasotzen den egunetik hasita, zuzendaritzari Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak erreklamazioa azter dezala eskatzen ahalko zaio idatziz.

5. Ikastetxeko zuzendaritzak Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuari igorriko dio espedientea, eskaera jasotzen den egunaren hurrengo egun baliodunean.

6. Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak, espedientea aztertuta eta, besteak beste, foru agindu honen 3. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, txosten bat emanen du. Txosten hori zuzendari nagusi eskudunari igorriko zaio, erreklamazioaren gaineko ebazpena eman dezan.

7. Zuzendari nagusiaren ebazpena hiru egun balioduneko epean emanen da, gehienez ere, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak espedientea jasotzen duenetik hasita. Ebazpen horrek bide administratiboa amaituko du.

### **Batxilergoan lortutako batez besteko azken kalifikazioaren aurkako erreklamazioa.**

1. Batxilergoan lortutako batez besteko azken kalifikazioaren aurka aurkeztutako erreklamazioa jaso ondoren, zuzendaritzak aztertuko du, aurkeztutako alegazioak kontuan hartuta, eta horren gaineko txostena eginen du, berraztertu den azken kalifikazioa aldatzeko edo berresteko hartutako erabaki arrazoitua izanzen duena. Txosten horren kopia emanen zaio ikasleari edo, hala badagokio, guraso bati edo legezko ordezkariari, ahalik eta epe eta modu laburrenean. Honela bukaera emanen zaio ikastetxean erreklamatzeko prozesuari.

2. Ikastetxean erreklamatzeko prozesua agorturik, bi egun balioduneko epean, aipatu kopia jasotzen den egunetik hasita, zuzendaritzari Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak erreklamazioa azter dezala eskatzen ahalko zaio idatziz.

3. Ikastetxeko zuzendaritzak Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuari igorriko dio espedientea, eskaera jasotzen den egunaren hurrengo egun baliodunean.

4. Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak, espedientea aztertuta, txosten bat emanen du. Txosten hori zuzendari nagusi eskudunari igorriko zaio, erreklamazioaren gaineko ebazpena eman dezan.

5. Zuzendari nagusiaren ebazpena hiru egun balioduneko epean emanen da, gehienez ere, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak espedientea jasotzen duenetik hasita. Ebazpen horrek bide administratiboa amaituko du.

### **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ebaluaziorako agirietan erregistratzea.**

Aurkeztutako erreklamazioa baiesten bada arestian aipatutako instantzietakoren batean, dagokion zuzenketa agerraraziko da ebaluaziorako agirietan, ikastetxeko idazkariak sinatutako eta zuzendariak ikus- onetsitako eginbidearen bitartez.

### **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko aparteko deialdien gaineko erreklamazioak.**

Aparteko deialdien gaineko erreklamazioen ondorioz ikastetxeak nahiz Hezkuntza Departamentuak egiten dituen egintza administratiboen epeak behar bezala egokituko dira, ikasleek bere ibilbide akademikoa jarraitu ahal dezaten.

### **e) Ikastetxeko bizitzan parte hartzeko eskubidea**

Ikasle guztiek ikastetxeko bizitzan parte hartzeko eskubidea dute, dela banaka dela taldeka, ikastetxeak ezartzen dituen baldintzetan. Eskubide hori honako alderdi hauetan gauzatzen da:

e.1) Ikastetxean dituzten ordezkarien bidez edo legez eraturik dauden ikasleen elkarten bidez parte hartzea. Honetarako, ikastetxean ikasleen Ordezkaritza Batzordea egongo da. Batzordea ikastetxeko Eskola Kontseiluan ikasleek dauzkaten ordezkariak eta ikastalde bakoitzean, bozketa aske eta isilpekoaren bidez, aukeratutako ordezkariak osatuta egongo da. Ordezkaritza Batzordea bost ikasle, gutxienez, osatuko dute. Azken hauek lehenbiziko 30 eskola egunen barrenean eta ikasturte osorako hautatuak izango dira. Hautaketarako ikastalde bakoitzean hauteskunde-mahai bat osatuko da ondoko kide hauekin: presidentea (ikastaldearen tutorea), ikaskide bat (ikastaldeko ikaslerik zaharrena) eta idazkari bat (ikastaldeko ikaslerik gazteena). Aipatutako hauteskunde-mahaiaren ardurak bozketa, botoen zenbaketa egin eta akta betetzea izango dira; akta honetan ordezkaria izateko pertsonen izenak agertuko dira.

Ordezkaritza Batzordea behin eratu eta gero, Batzorde honek Lehendakari eta Idazkari bat izendatuko ditu Batzordearen erabaki edota proposamenen bozeramale lanak egingo dituztenak. Eskola Kontseiluaren aurreko ordezkariak, aldez, funtzio honetarako hautatutako ikasleek izango dute soilik.

Ordezkaritza Batzordeko kideek ezin dute zehapenik jaso, erregelamendu bidez ezarritako baldintzetan, Barne-erregimenaren arautegi honek beren eginkizuntzat jotzen dituen betebeharrak jarduteagatik.

Ordezkaritza Batzordeak hurrengo eginkizunak izango ditu:

a) Aholku eta laguntza ematea Ikastetxeko Eskola Kontseiluan ikasleen ordezkari direnei, zeinei helaraziko baitiete Batzordeak ordezkatzan dituen ikasmila, ikasgela, espezialitate edo adar bakoitzaren berariazko arazoa.

b) Ikastetxeko Eskola Kontseiluarendako txostenak prestatzea, bai bere ekimenez, bai aipatu organo kolegiatuak eskaturik.

c) Institutuko Eskola-kontseiluaren gai-ordenari buruzko informazioa jasotzea, behar den denborarekin, eta hartzen diren erabakien gainean, zabaldu eta ikasmila guztietan aztertzeke aukera izan dadin.

d) Ikastetxeko ikasle guztiei beren jardueren berri ematea.

e) Ikasgelara ez joateko deialdiarako proposamenak jaso eta horren berri ematea Ikastetxeko guztiei, banakako bozketa isilpekoaren bidez onets edo gaitzets daitez, eta ateratzen den emaitza eta ondorengo erabakia Ikastetxeko Zuzendaritzari jakinaraztea.

Ikasleek eskubidea dute, Ordezkari Batzordeko kideengandik eta ikasle elkarten ordezkariengandik informazioa jasotzeko, bai norberaren Ikastetxeari dagozkion gorabeheri buruz, bai beste ikastetxeei dagozkienetan, baldin eta Ikastetxeko ekitaldien ohiko jarduna galarazten ez bada.

e.2) Adierazpen askatasuna. Bere iritzia errespetuz adierazteke aukera, baldin eta iritzi horiek Giza Eskubideen eta balio demokratikoen esparruaren barruan badaude eta ikastetxearen hezkuntza proiektua eta ikastetxearen izaera errespetatzen badituzte. Horretarako, ikastetxean adierazpen libreko karteldegia egongo dira, eskubide hau bereziki gauzatzeko; nolahi ere elkarbizitzarako printzipio demokratikoak eta hezkuntza komunitateko edozein kidek merezi duten begirunea bermatuta geldituko dira.

Toki hauetan agertuko diren txartelak, idazkiak, aurreko lerroaldean agertzen diren baldintzak betetzeaz gain, pertsona identifikagarri edo legalki eraturako erakundeak sinatuko du.

Gela bakoitzean egongo den iragarki karteldegia eskola, kultura eta eskola-komunitatearen ekintzen berri emateko balioko du (informazio orokorrak, eskola-lanak, eskolaz kanpoko ekintzak, jai egunetako programak ...)

Zuzendaritzaren baimena beharko da egokia ez den tokian kartel bat jartzeko.

#### **f) Ikasleen “grebarako eskubidea”**

Adierazpen askatasunaren barruan sartzen da ikasleek gertaera akademikoekiko euren desadostasuna azaltzeko eskubidea klaseetara ez joateko proposamen baten bitartez. Hau zehazten da DBHko hirugarren mailatik aurrera, eskoletara ez joateko eskubidean eta ondoko era honetan araututa geratzen da:

1. Derrigorrezko bigarren hezkuntzako hirugarren mailatik aurrerako ikasleek eskolara ez joateko taldeka hartzen dituzten erabakiak ez dira justifikatu gabeko hutsegite gisa hartuko, baldintza hauek betetzen badira:

a) Hezkuntza arloko erabakiekiko desadostasunengatik izan bada.

b) Ikastetxeko zuzendaritzan eta ordezkarien batzarrean aurkeztutako proposamena, deialdia egiten dutenek sinatutako idazki arrazoitu baten bidez. Idazkia hutsegitearen eguna baino gutxienez hiru eskola egun lehenago aurkeztu beharko da, eta deialdiaren arrazoiak, dei-egileak, eguna eta ordua aipatu beharko dira.

c) Proposamena ikastetxean DBHko hirugarren eta laugarren mailetan eta derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntzan matrikulaturik dauden ikasle guztien %15ek edo ikasle goaren %15a ordezkatzen duten ikasle-elkarteek sinatu beharko dute gutxienez, edo DBHko hirugarren eta laugarren mailetan eta derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntzan matrikulaturik dauden ikasle ordezkarien %75ek.

d) Ikasleek, bozketa sekretuaren bidez, eskolara ez joateko proposamena onartzea edo errefusatzea gehiengo osoz, ordezkararen argibideak jaso ondoren. Guztirako emaitza eta gelaz gelakoa ikastetxeko zuzendaritzari jakinaraziko dizkio ordezkarien batzarrak, aurreikusitako jarduketak hasi baino bi eskola egun lehenago gutxienez.

2. Ikastetxeko zuzendaritzak aztertuko du betebeharrak horiek betetzen diren eta, horren arabera, ebatziko du eskolara ez joate hori justifikatu gabeko hutsegitez hartzen den edo ez. Ebazpen horren berri DBHko hirugarren mailatik aurrerako ikasleei, irakasleei, ordezkarien batzarrari eta ikastetxeko guraso elkarteetako buruei jakinaraziko zaie idatziz.

3. Dena dela, ikastetxeko zuzendaritzak behar diren neurriak hartuko ditu eskolara huts egiteko erabakia betetzen ez duten ikasleek arautegi honetan aipatzen diren eskubideak erabili ahal izan ditzaten.

e.3) Ikastetxean biltzea. Ikasleak ikastetxean bildu ahalko dira eskolako zein eskolaz kanpoko jarduerak burutzeko eta, halaber, hezkuntza edo prestakuntza osatzeko helburua duten bestelakoetarako.

Ikastetxeetako zuzendariak eskubide hortaz baliatzeko behar diren lokalak jarriko dituzte eskura, baina beti ere, jarduera horiek egin beharko dira ikastetxeko jardueren garapena errespetatuz.

e.4) Elkarrekin osatzea. Ikasleek elkarrekin osatzeko eskubidea dute, indarreko legediari jarraikiz.

e.5) Adiskidetzeta eta bitartekaritza bideak erabiltzea gatazkak konpontzeko hezkuntza metodo gisa.

e.6) Ikasleek ikastetxeetako gobernu organoetan parte hartzea indarreko araudiari jarraikiz.

#### **g) Denek aukera berdina edukiz hezia izateko eta babes soziala izateko eskubidea.**

Ikasle guztiek babes sozialerako, aukera berdintasunerako eta hezkuntza eremuan sartzeko eskubidea dute, indarreko lege esparruaren barruan. Eskubide hau, hezkuntza eremuan, honela gauzatzen da:

g.1) Babes eta laguntza jasotzea desberdintasun, gabezia edo desabantaila pertsonalak, familiarak, ekonomikoak, sozialak edo kulturalak konpentsatzeko, hezkuntza sisteman sartzeko edo segitzea galarazten edo zailtzen duten premia berariazkoak dituztenei arreta berezia eskainiz.

g.2) Familia ezbeharretan edo istripuetan babesa jasotzea. Eritasun luzea gertatzen denean, ikasleak eskubidea du ezinbestean eskolatu gabe egon beharreko aldiak bere ikasketen errendimenduan duen eragina gutxitzeko behar den laguntza jasotzeko.

g.3) Indarkeriaren biktima diren ikasleei arreta berezia ematea, ikasketak egoki egiteko behar duten laguntza jaso dezaten.

g.4) Genero indarkeriaren edo eskolako jazarpenaren biktima diren ikasleei arreta berezia ematea.

g.5) Tratu txar fisiko edo psikologikoen edo axolagabekeriako edo babesgabatasuneko beste edozein egoeraren arrazoizko zantzurik dagoenean edo horrelakoak konfirmatzen direnean, babesa ematea.

#### **h) Osasuna babesteko eta sustatzeko eskubidea.**

Ikasle guztiek beren osasuna babesteko eta sustatzeko eskubidea dute. Eskubide hau, hezkuntza eremuan, honela gauzatzen da:

h.1) Ikastetxeetan ohitura osasungarriak sustatzea.

h.2) Gorputz ariketa egiteko ohiturak sustatzea, osasunerako eta aisialdirako, hezkuntzaren ikuspegi batetik.

h.3) Elikatzeko ohitura osasuntsuak sustatzea. Ikastetxeetako jantokietan eskaintzen diren menuetan hori bermatu beharko da.

**i) Jasotzen den hezkuntzan, helburuen artean emakumezkoen eta gizonezkoen eskubideen eta aukeren berdintasuna sartzeko eskubidea. Eskubide hori honako alderdi hauetan gauzatzen da:**

i.1) Behar diren gaitasunak garatzea eta behar diren ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak sartzea ikasleek autonomiaren eta independentzia pertsonalaren arloan, etxeko lanen arloan eta pertsonen zainketaren arloan dituzten edo izan ditzaketen behar eta erantzukizunak beren gain har ditzaten.

i.2) Behar diren ezagutzak eta trebetasunak sartzea ikasleek ikas dezaten erabakitze esparruetan erantzunkidetasuna onartzen eta horrela parte hartzen.

i.3) Emakumezkoak eta gizonezkoak berdintzat hartzea, emakumezkoek hainbat diziplinatan duten jakinduria berreskuratuz eta gizadiaren garapenerako egin duten ekarpen sozial eta historikoa aintzat hartuz.

i.4) Hizkuntza ez-sexista erabiltzea eta komunikatzeko estiloen aniztasuna errespetatzea, ikaslearen auto-estimua eta nortasuna garatzeko berdintasun balioak transmititzeko giltza-baliabidea baita.

i.5) Aukera akademikoak, pertsonalak eta profesionalak sexuari lotutako estereotipoetan oinarritutako baldintzarik gabe egiteko prestatzea.

i.6) Ikaslearen heldutasun pertsonala, soziala eta morala sendotzea, bere harreman pertsonaletan eta afektibo-sexualetan erantzukizunez eta modu autonomoan jarduteko, dauden desberdintasunak aztertu eta kritikoki baloratzeko eta pertsonen arteko benetako berdintasun eraginkorra sustatzeko.

#### 5.4.2. IKASLEEN EGINBEHARRAK

Hona hemen ikaslearen oinarrizko eginbeharrak:

**a) Ikastea, ikasleen oinarrizko eginbeharra baita. Eginbehar honek zera dakar:**

a.1) Eskolako nahitaezko jarduera guztietara joatea eta aktiboki parte hartzea. Ikasgelara justifikatu gabe ez joatearekiko prozedurak:

Hutsegiteak justifikatzeko prozedura : Gurasoek justifikatu beharko dituzte ikasleen ez-etortzeak, klasera itzuli eta hiru eguneko epean. Epe horretaz kanpoko justifikazioak ez dira kontuan hartuko.	Hutsegiteak ondoko moduan kudeatuko dira: <ul style="list-style-type: none"><li>• Hiru abisu eman behar zaizkio ikasle bati ebaluazio jarraitua galdutzat emateko.</li><li>• Faltak ikasgaiz ikasgai zenbatuko dira (arloko irakasleak kudeatuko du, idazkaritzan abisua emanez etxera eskutitza bidaltzeko): beraz, kontuan hartuko dugu ikasgai bakoitzean falten kopurua eta zigorra ikasgai horretan soilik aplikatuko da.</li><li>• Lehen abisua ikasgai batean falten kopurua %6a denean</li></ul>
--	--



Egoeraren arabera, justifikantean emandako arrazoa ziurtatzen duen agiria eska daiteke.

- Bigarren abisua falten kopurua %10a denean.
- Hirugarren falta, ebaluazio jarraituaren galerarekin doana, %15a denean. Galera hau Ikasketa Buruak aplikatuko du, eta ikasleari, haren amari edo aitari edo legezko ordezkariari jakinaraziko die.
- Ehunekoak ondoko kopuruak bilakatzen dira:

Aste bakoitzean	Ordu kopurua urte osoan	%6	%10	%15
Ordu bateko ikasgaiak	34	2	4	6
2 ordukoak	68	4	7	10
3 ordukoak	102	6	10	15
4 ordukoak	136	8	13	20

- Hiru bidegabeko atzerapenek bidegabeko hutsegite oso baten balioa dute.
- Ebaluazio jarraituaren galera aplikatzeko modua hau da: momentu horretara arte izandako emaitzak kontuan hartuko dira, baina hortik ekaina arte ez du izango inolako azterketarik. Ekainean azterketa bakarria egingo du zati horretan egindakoa ebaluatzeko eta aldi berean aurretik zerbait pendiente baldin badu azterketa horrekin batera ebaluatuko zaio.

a.2) Ikastetxeko jardueren ordutegia errespetatzea eta garaiz iristea, jarduerak ikastetxearen instalazioen barrenean izan edo kanpoan.

a.3) Estudiatzea eta ahalegintzea, norberaren gaitasunen arabera garapenik handiena lortzeko.

a.4) Atsedenaldiari, elikadurari eta higienerari dagokienez, ohitura egokiak izatea.

**b) Irakasleen eta zuzendaritza taldearen hezkuntza lana eta agintea errespetatzea eta eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten beste eragile batzuen oharrei kasu egitea. Eginbehar honek zera dakar:**

b.1) Irakasleen eta zuzendaritza taldearen hezkuntza lana, agintea eta intimitatea errespetatzea, eta eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten beste eragile batzuen oharrei kasu egitea, hala hezitzaile gisa ari direnean, nola ikastetxearen antolaketa eta funtzionamendu arauak eta elkarbizitzaren arauak betetzeko kontrol lanetan ari direnean.

b.2) Irakasleek agintzen dituzten lanak egitea.

b.3) Ikastetxearen izaera eta hezkuntza proiektua errespetatzea.

**c) Ikastetxeko elkarbizitza hobetzen eta, ikasgelan eta ikastetxean, ikasketetarako giro egokia lortzen parte hartzea eta modu positiboan laguntzea. Eginbehar honek zera dakar:**

c.1) Ikastetxeko elkarbizitzarako arauak eta antolaketa eta funtzionamendu arauak betetzea.

c.2) Parte hartzea eta eskola elkarteko kide guztiei modu aktiboan eta positiboan laguntzea hezkuntza jarduera guztiak errazago egin daitezkeen.

c.3) Ikasgelan eta ikastetxean ikasteko giro egokia sortzen eta mantentzen laguntzea irakasleei.

c.4) Bere ahalmenen arabera, sortzen diren gatazkei aurrea hartzen eta gatazkak bake bidez eta zuzen konpontzen parte hartzea.

c.5) Behar dutenei laguntza eskaintzea eta ematea.

c.6) Pertsona ahulenen alde eta eskolan jazarpena jasan dezaketenen alde aktiboki parte hartzea, biktimagaiak errespetatuz, defendatuz eta integratuz, eta ikastetxeak Elkarbizitza Planeko "antibullying" protokoloaren bidez ezartzen dituen neurrietan lagunduz.

c.7) Ikastetxeko eta, kasua bada, ikasgelako elkarbizitzarako arauak eta funtzionamendu arauak prestatzen parte hartzea, bere eskumen esparruan.

c.8) Ikastetxearekin batera aktiboki parte hartzea hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak ikastetxeko jarduera eta bizitzan sar daitezen.

**d) Pertsonak errespetatzea. Eginbehar honek zera dakar:**

d.1) Besteenganako harremanetan errespetuz jokatzea eta hori elkarbizitzarako oinarrizko arautzat hartzea.

d.2) Bere ikaskide guztiei ahalbidea eta erraztasunak ematea foru dekretu honetan ezarritako eskubide eta eginbehar guztiak erabil ditzaten, batez ere ikasteko eskubidea.

d.3) Jarrera baketsua izatea eta sustatzea, mota guztietako indarkeriak errefusatzuz.

d.4) Kontzientzia askatasuna eta sinesmen ideologiko, erlijioso eta moralak errespetatzea, jende guztiaren eskubidea den aldetik, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak eta Espainiako Konstituzioak babestu eta aitortua; orobat, eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kide guztien duintasun pertsonala, osotasuna eta intimitatea errespetatzea, jaiolekua, arraza, sexua, erlijioa, iritzia edo beste edozein inguruabar pertsonal edo sozial dela kausa litezkeen bazterketa guztiak saihestuz.

d.5) Eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kide guztien ondasunak errespetatzea.

**e) Ikastetxera behar bezala jantzita eta norberaren higieena zainduta joatea. Eginbehar honek zera dakar:**

e.1) Erabiltzen diren jantziak ikastetxeen izaeraren araberakoak izatea, ikasteko tokiak baitira. Jantziak hezkuntzako lanak eta jarduerak egoki eta ongi egiteko modukoak izanen dira eta ikaslea identifikatzeko trabarik ez dute jarriko.

e.2) Ikastetxearen aholkuak errespetatzea. Ikasgelan dagoen irakaslearen ardura da janzkerari buruzko egokitasun aholku edo zehaztapenak ematea, eta desadostasunak egotekotan zuzendaritzari egokituko zaio ardura hau. Aholku edo zehaztapen hauetan gizonezkoen eta emakumezkoen tratu berdintasunaren irizpideak hartuko dira aintzat eta kontuan hartuko dira janzkien aniztasuna eta elkarbizitzan dituzten ondorioak, gogoeta kritikoa eginenez eta integrazioaren ikuspegitik, eta aniztasuna errespetatuz.

e.3) Norberaren higieena eta garbiketarako ohitura egokiak izatea, osasun egoera egokian izateko eta eritasunen transmisioa galarazteko.

**f) Ikastetxeko instalazioak, ekipamendua, altzariak eta materialak zaintzea eta egoki erabiltzea, hala nola ikastetxearen inguruetakoa eta eskola garraioetakoa. Eginbehar honek zera dakar:**

f.1) Ikastetxeko instalazioak eta ekipamendua, larrialdietako sistemak eta hezkuntza jardueran erabiltzen diren materialak errespetatu eta zaintzea.

f.2) Ingurumena errespetatzea, ikastetxean garbitasuna zainduz, ura eta energia egoki erabiliz, hondakinak bereiziz, etab.

f.3) Ikastetxearen inguruak errespetatzea, lorategiak, espaloiak, atariak, fatxadak, hormak eta abar garbi eta txukun mantenduz.

## **5.5. IV KAPITULUA. Irakasleen betebeharrak eta eskubideak**

### **5.5.1. Betebeharrak**

- 1.1. Irakasleek, dagozkien klase, ebaluazio Departamentu Didaktikoen bilerak, zaintza eta klaustroetara joan behar eta bertan parte hartu behar dute aktiboki. Departamentu Didaktiko buruek eta tutoreek Departamentu Didaktikoen bileretara eta ebaluazio saioetara, hurrenez hurren, joaten ez diren irakasleen berri emango diote zuzendariari.
- 1.2. Institutura etortzerik ez duen irakasleak, Zuzendariari ziurtagiri bat aurkeztu behar dio, eta indarrean dagoen legediari lotu.
- 1.3. Puntualak izan, eskola hasieran zein bukaeran, azterketetan eta beste edozein eskola ekintzatan.
- 1.4. Kontrolatu ikasleen ez-etortzeak, dagokion tutoreari jakinaraziz.
- 1.5. Hezi ikasleak elkar-ulertze, tolerantzia eta elkarbizitza demokratikoan, haien moralak eta bakoitzaren izaera errespetatuz.
- 1.6. Errespetatu eta errespetarazi Barne Araudi hau, eta honen babesean erakunde kompetentek hartutako erabakiak.

### **5.5.2. Eskubideak**

LODEK 3, 8, 18 eta 19 artikuluetan ematen dizkien eskubideez gain (katedra askatasuna, biltzeko eskubidea, neutraltasuna eta ideologi begirunea, zentroen gestioan eta kontrolean parte hartzea), irakasleek badute eskubidea :

- 1.7. Ikasleek, ikasleen gurasoek eta zentroko beste langileek begirune eta gizabidez tratatuak izateko.
- 1.8. Orokorrean zentroari edo irakasleei partikularki dagozkien gaien gainean, informatuak izateko.
- 1.9. Zuzendaritzari edo Eskola Kontseiluari edozein ekimen, iradokizun edo arazo planteatzeko.
- 1.10. Beren irakaskuntzan Institutuko material guztia erabiltzeko.
- 1.11. Pedagogi ikerkuntza ekimenak bultzatzeko.
- 1.12. Legedian onartzen diren eskubide sindikalak burutzeko.

## **5.6. V KAPITULUA. Atezain eta ordenantzen funtzio, betebeharrak eta eskubideak**

### **5.6.1. Atezain eta ordenantzen funtzio eta betebeharrak**

- 1.1. Zentroaren zainketa eta segurtasunaren gaineko ardura hartu behar dute.
- 1.2. Zentroa eta bere instalazioen irekitze eta ixtearen arduradunak dira, beti ere ezarritako ordutegiari atxikiz.
- 1.3. Zentroaren mantentzen orokorraren gainean ardura hartu behar dute, altzariak, makinak, instalazioak eta lokalak zainduko dituztelarik.
- 1.4. Zentrotik kanpoko jendearen sartzea kontrolatu behar dute, haien eskaerak jasoz eta hala balegokio helburu duten bulego edo lekuraino lagunduz.

- 1.5. Zentroan, jendearen sartze, ateratze eta ibiltzea ordenan eta isiltasunean izateko ahaleginak egin behar dituzte.
- 1.6. Zentroko bulego, idazkaritza eta bestelako gela eta aretoetako giltzak gorde behar dituzte.
- 1.7. Bidalitako agiri, objektu edota korroea jasotze, edukitze edo banatzeaz arduratu behar dute.
- 1.8. Agintzen zaizkien Ikastetxearen barne edo kanpoko zeregin edo mandatuak bete behar dituzte.
- 1.9. Zuzendariari, haien lan uztea eskatu edota horren berri eman beharko diote, beti ere jakinaren gainean izatearren.
- 1.10. Zuzendariari Zentroan gertatutako ezuste ororen berri eman behar diote (eraikinean, instalazioetan, materialean...)
- 1.11. Zentroko Zuzendariaren baimenez, multikopista-gailua, fotokopiagailua, enkuadernagailua eta antzerako tramankulu edo aparailuen erabiltzea.
- 1.12. Telefonoko mezuak hartu eta utzitako mezuak dagozkien pertsoneri eman.
- 1.13. Indarrean dagoen legedian aipatutako beste edozein funtzio edo betebeharrak.

#### **5.6.2. Atezain eta ordenantzen eskubideak**

- 1.14. Zentroko beste pertsonak errespetatuak izateko eskubidea, beren giza duintasunari zein pentsamoldeari dagokionez.
- 1.15. Beren behar, interes eta arazoak, dagozkien organoetara bideratuak izateko: Zuzendaritza taldea, Eskola Batzordea, Erakunde Ofizialak.
- 1.16. Bere lanean eraginik izan dezakeen edozein aldaketaren aurrean, jakinaren gainean jarria izateko.
- 1.17. Batzordeko ordezkariaren bitartez, Zentroaren erabakietan parte hartzeko, egoki deritzeten erreforma, iradokipen, eta abar plazaratuz.
- 1.18. Beren lan ordutegia kontutan hartu eta errespetatua izateko.
- 1.19. Edozein ardura zibilen aurrean babestua izateko, horretarako beharrezkoak diren neurriak hartu behar direlarik: Eskola aseguruia ...
- 1.20. Beren interesen aurka jo dezakeen komunikazio ofizial ororen berri altxatzeko.
- 1.21. Lan eskubideak, sindikalak defendatzeko eta greba egiteko.

### **5.7. VI KAPITULUA. Administrazio-langileen betebeharrak eta eskubideak**

#### **5.7.1. Betebeharrak**

Administrazio-langileek, idazkariaren kontrolpean, lan burokratikoak edo kontableak egingo dituzte. Idazkariak aginduta, eginarazten zaizkien lanak beteko dituzte, beti ere bere lan-maila kontutan hartuta, esate baterako :

- Telefonoz edo pertsonalki idazkaritzara informazio eske etortzen diren pertsonak ondo eta modu onez erantzun eta eskatutakoa momentuan egin, ahal bada.
- Zuzendariak edo idazkariak agintzen dituen lanak (idaz-makinatzea, datu-hartzea, posta-artxiboa, eta abar) bete.
- Beren kargu dagoen matrikulei, espedienteei, bekei, dirulaguntzei, estatistikari, etabarri buruzko guztia birpasatu, ordenatu eta, hala badagokio, zuzendu eta beharrezkoa denean dena bideratu.
- Gestio ordenagailuan ikasleen base-datua prestatu eta sartu, baita ebaluaketan kalifikazioak ere. Nota-orriak, matrikula, eskola-asegurua eta dokumentazio akademikoari buruzko guztia prestatu eta, beharrezkoa denean, bidali.
- Beren kargu dagoen dokumentazioa, objektuak eta materiala jaso, ordenatu, banatu eta zaindu.
- Idazkaritzako baliabideak zaindu, baita gelaren ordena zein antolaketa ere.
- Beren lan-maila eta titulazioa kontutan hartuta, ardura eta ekimena eskatzen dituen edozein funtzio burokratiko edo kontable bete.
- Indarrean dagoen legeak arautzen duen beste edozer.

## 5.7.2. Eskubideak

- Baliabide guztiak eskura jarri beren lan-hobekuntza ziurtatzeko.
- Ikastetxeko talde organoetan parte hartzeko baita lan-ordezkaritzan ere.
- Biltzeko, beren funtzioen garapena ahaztu gabe.
- Zentroko beste pertsonak errespetatua izateko, bere giza duintasunari dagokionez.
- Indarrean dagoen legeak arautzen duen beste edozer.

## 5.8. VII. KAPITULUA. Elkarbizitzaren aurkako portaerak eta hezkuntza neurriak

### 5.8.1. Elkarbizitza nahasten duten portaerak zuzentzeko printzipio orokorrak

#### 1. artikulua. Zuzendu beharreko portaerak.

Zuzendu beharreko portaerak izanen dira elkarbizitzarako arauak urratzen dituztenak, eta betiere:

- a) Eskola ordutegiaren eta eskola eremuaren barrenean gertatzen badira.
- b) Eskola eremutik edo ordutegitik kanpora gertatzen badira ere, beti ere Institutuko jarduera hezgarriekin erlazio zuzena dutenean, ikasleen eginbeharren eta eskubideen urraketarekin zuzeneko harremana baldin badute,
- c) Ikastetxeak antolatutako jarduera osagarriak edo eskolaz kanpoko jardueretan gertatzen badira.

#### 2. artikulua. Neurriak aplikatzeko irizpideak.

- a) Irakasle guztiek, behar den eskolako giro ona erraztu behar dute eta elkarbizitzaren aurkakoak diren ikasleen portaerei aurrea hartu behar diete, eta ikasleei ohartarazi eta portaera zuzendu.
- b) Aplikatu beharreko neurri guztiak egintzen erantzulea den ikaslearentzat hezigarriak izanen dira. ikasleen eskubideak errespetatuz eta bermatuz.
- c) Neurri horiek aplikatuz gero, ikasle guztiek eta, bidezkoa denean, aita, ama edo legezko ordezkariak eskubidea izanen dute entzunak izateko eta beren burua defendatzeko alegazioak aurkezteko.

Neurri zuzentzaileak hartzeko prozeduretan, ikastetxeetako irakasleek eta zuzendaritzako taldeetako kideek egiaztatutako egitateek frogabalia eta egiazkotasun presuntzioa izanen dituzte, aurkako frogatzen ez bada, ikasle edo haien legezko ordezkariak haien eskubide edo interesen alde adierazten edo aurkezten ahal dituzten frogak galarazi gabe.

- d) Nolanahi ere, honako alderdi hauek kontuan hartu beharko dira:
  - Neurriek ikasleen hezkuntza prozesuak aurrera segitzea bermatu beharko dute, haien prestakuntza akademikoa galarazi gabe.
  - Neurriak aplikatzean ikaslearen adina eta egoera pertsonalak, familiarrak eta sozialak hartu beharko dira kontuan..
  - Aplikatzen den neurriarekin batera kalteen konponketa ere ezarriko da, batez ere kalte pertsonalak izan direnean.

3. Edozein hezkuntza neurri aplikatu aurretik, zilegi izanen da ohartarazpena, kargu-hartzea eta zuzentzeko errekerimendua egitea, ahoz eta/edo idatziz, baita portaera desegokiari eta haren ondorioei buruzko gogoeta bat ere.

4. Neurri jakin bat aplikatzea egokia ote den erabakitzeko, irakasle arduradunek eta zuzendaritzak ondoko hauengana jotzen ahalko dute aholku eske: ikastetxeko orientatzailea, ikastetxeko bizikidetza batzordea, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Hezkuntza Departamentuko Bizikidetzarako Aholkularitza, Hezkuntzako Ikuskatzailatza eta Hezkuntza Departamentuko bizikidetza batzordea.

## 5. ELKARBIZITZAREN AURKAKO PORTAERAK ETA HEZKUNTZA NEURRIAK APLIKATZEA

Elkarbizitzaren aurkako portaerak	Elkarbizitzaren aurkako portaeretan aplikatu beharreko hezkuntza neurriak	Aplikatzeko prozedura
<p><b>OHARRAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Hartutako neurriak, ikasleari, ikastetxeko zuzendariari eta tutoreari jakinaraziko zaizkie. Gero, tutoreak ikaslearen gurasoei edo legezko ordezkariari jakinaraziko dizkie.</li> <li>Ekintzen egileen berri izan eta hogeik eskolaegun igarota hezkuntza neurriak aplikatu ez bada, ezin izanen da horrelakorik aplikatu.</li> <li>Elkarbizitzaren aurkako portaerarako hezkuntza neurrien aurka ezin da inolako erreklamaziorik egin administrazio bidean.</li> </ul>		
<p>5.1. Arlo bateko hiru klaseetara berandu iristea justifikatu gabe.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Etengabeko ebaluazioaren eskubidea dagokionez, hiru atzerapenek hutsegite falta oso baten balioa dute.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Arloaren irakasleari dagokio neurria aplikatzea, zuzendariak eskuordeztuta.</li> </ul>
<p>5.2. Azterketetan, probetan edo ariketan kopiatzea edo beste ikasle batzuei kopiatzeko bidea ematea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Aipatutako azterketan, proban edo ariketan kalifikazio negatiboa jartzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Arloaren irakasleari dagokio neurria aplikatzea, zuzendariak eskuordeztuta</li> </ul>
<p>5.3. Ikasteko eginbeharra ez betetzea, edo bere ikaskideek ikasteko duten eginbeharraz eta eskubideaz baliatzea eragozten duen beste edozein portaera hartzea eskolak bitartean.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Atsedenaldea erabiltzea ikasleak egindakoa konpondu edo bideratzeko lan berariazkoetarako.</li> <li>Elkarbizitzaren aurkako portaera zein irakaslerekin gertatu den, hark ematen dituen irakasgaien eskoletara agertzeko debekua, 3 saiotarako gehienez.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Zuzendaritzakoek aplikatuko dute neurria</li> </ul>

<p>5.4. Eskolara behin eta berriz agertzea behar den materiala eraman gabe, hori ikasleari egotzi beharreko arrazoiengatik bada.</p> <p>5.5. Ikasleak lan gutxi egitea behin eta berriz, hala etxean nola ikasgelan.</p>	<p>Ordu horietan, neurria aplikatu duen irakasleak erabakitzen dituen prestakuntza jarduerak egin beharko ditu ikasleak ikastetxean, bere hezkuntza eta ebaluazio prozesua ez eteteko.</p>	
<p>5.6. Ikastetxeko instalazio edo materialak, eskolako garraio bideak edo bisitatzen diren lekuetako ondasun edo instalazioak nahita hondatzea, baita eskola elkartekoa den edo haren zerbitzura jarduten duen edozein kideren gauzak ere, kaltea arina denean.</p> <p>5.7. Ikastetxeko instalazioen, ekipamenduen, materialen edo inguruen garbiketa galaraztea, hala nola eskolako garraiorako autobusena edo ikastetxearekin bisitatzen diren lekuena. Pintaketak egitea bereziki tratatuko dira.</p>	<p>Egindako kalteak direla-eta, betiere ardura zibilak arautzen dituen kalte ordainetatik haratago, ikasleari honako neurrietako bat aplikatuko zaio:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lan batzuk egitea, eskola ordutegiaren barrenean edo hortik kanpora, pertsoneri, ikastetxeko instalazioei edo materialei edo eskola elkarteko kideen gauzei eragindako kaltea konpontzen laguntzeko, edo eskola elkartearantz onuragarriak diren lanak egitea.</li> <li>• Jarduera osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea denbora mugatu baterako.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zuzendaritzakoek aplikatuko dute neurria</li> </ul>
<p>5.8. Pertsonen duintasunaren eta legez ezarritako eskubide demokratikoen aurkako adierazpen berariazkoak egitea, edo hezkuntza proiektuaren eta ikastetxearen beraren izaeraren aurkakoak.</p> <p>5.9. Irakaslearen agintearen aurkako errespetu faltak, eta ikastetxeko langileei desobeditzea, beren eginkizunetan ari direla.</p> <p>5.10. Eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kideak desegoki eta errespetu gabe tratatzea.</p> <p>5.11. Taldekako absentzietan parte hartzea, zuzendaritzak baimentzen ez baditu.</p> <p>5.12. Ikastetxeko langileei gezurrak esatea edo nahita informazio faltsua ematea, horrek eskola elkartekoa den edo haren zerbitzura jarduten duen kideren bati kalte larria eragiten ez badio.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jakinarazte pribatua.</li> <li>• Idatzizko jakinarazpena, eta horren agiria Ikasketa Buruak gordeko du eta ikasleak adinez txikiak direnean haren berri gurasoei emanen zaie.</li> <li>• Atsedenaldira erabiltzea ikasleak egindakoa konpondu edo bideratzeko lan berariazkoetarako.</li> <li>• Elkarbizitzaren aurkako portaera zein irakaslerekin gertatu den, hark ematen dituen irakasgaien eskoletara agertzeko debekua, 3 saiotarako gehienez. Ordu horietan, ikasleak neurria aplikatu duen irakasleak erabakitzen dituen prestakuntza jarduerak egin beharko ditu ikastetxean, bere hezkuntza eta ebaluazio prozesua ez eteteko.</li> <li>• Ikastetxean sartu edota ateratzeko eskola ordutegia aldatzea, 5 eskola egunetan gehienez.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Zuzendariak edo edo horren eskuordetza duen organoari edo irakasleari dagokio neurria aplikatzea</i></li> </ul>



<p>5.13. Debekatuta dauden ekipoak, materialak, jantziak edo gailuak eramatea, salbu eta zuzendaritzaren baimena badu.</p> <p>5.14. Ikastetxeko guneak, materiala eta ekipamendua erabiltzea baimenik gabe, edo hezkuntzakoak ez diren helburuetarako edo baimendutakoak ez diren beste batzuetarako.</p> <p>5.15. Ikastetxeak jantziei buruz ezartzen dituen arauak ez betetzea.</p> <p>5.16. Norberaren higienari eta garbiketari behin eta berriz arreta galtzea, nahita.</p> <p>5.17. Ikastetxearen barrenean, eskolako garraibideetan edo ikastetxeak antolatzen dituen jardueren bitartean tabakoa erretzea edo edari alkoholodunak edatea.</p> <p>5.18. Ikastetxeak aitei, amei edo legezko ordezkariari bidaltzen dien informazioa ez ematea edo ez jakinaraztea haiei.</p> <p>5.19. Eskola jardueraren ohiko garapena nahasten duen beste edozein jokabide oker, ikastetxeko elkarbizitzarako bereziki kaltegarria den portaeratzat hartzen ez bada.</p> <p>5.20. Bost berandutze parte pilotzea. Berandutze parte bat jasoko du ikasleak bost berandutze pilaturik.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lan batzuk egitea, eskola ordutegiaren barrenean edo hortik kanpora, pertsonei, ikastetxeko instalazioei edo materialei edo eskola elkarteko kideen gauzei eragindako kaltea konpontzen laguntzeko, edo eskola elkartearentzat onuragarriak diren lanak egitea.</li> <li>• Jarduera osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea denbora mugatu baterako.</li> <li>• Ikaslea beste talde batera aldatzea aldi baterako.</li> </ul>	
---	---	--

## 6. ELKARBIZITZARAKO BEREZIKI KALTEGARRIAK DIREN PORTAERAK.

- a) Irakasleen edo haren agintearen aurkako edo eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kideen aurkako irainak, kalumniak, ofentsak, isekak edo umiliazioak, haien aurkako indarkeria fisikoa edo bestelakoa eta, halaber, haienganako jazarpen eta hitzezko edo egitezko jokabideak, bereziki alderdi sexista, arrazakeriazkoa edo xenofoboa badute edo pertsonen sinesmen edo konbikzio moralen aurkakoak badira, edo dituzten ezaugarri pertsonalen, ekonomikoen, sozialen edo hezkuntzakoengatik ahulenak diren pertsonen aurka egiten badira.
- b) Eskolaldiko edo hezkuntzako jardueren barreneko testuak, irudiak, soinuak eta abar grabatzea zuzendaritzak baimentzen ez dituen erabileretarako, baita pertsonen bizitza pribatuarekin zerikusia duen edozein eszena grabatzea ere. Era berean, hezkuntzako jarduerarekin zerikusirik ez duen edo/eta jarduera bera oztopatu edo galarazi dezakeen edozein tresneria elektronikoa erabiltzea.
- c) Aurreko atalean adierazitakoak baliabide elektronikoen bidez edo beste baliabide batzuen bidez hedatzea.
- d) Ikastetxeko instalazioak, materialak edo dokumentuak, eskolako garraiobideak edo bisitatzen diren lekuetako ondasun edo instalazioak nahita hondatzea, baita eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten gainerako kideen gauzak ere, kaltea larria denean.
- e) Asmo txarrez eginak izateagatik, eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kideen osotasun fisikoarentzat arriskugarriak izan daitezkeen portaerak.
- f) Ikastetxeko langileei gezurrak esatea edo informazio faltsua ematea nahita, horrek eskola elkartekoa den edo haren zerbitzura jarduten duen kideren bati kalte larria eragiten badio.
- g) Ikastetxeko gauzak edo edozein pertsonaren gauzak lapurtzea.
- h) Ekitaldi akademikoetan beste pertsona baten itxurak egitea eta agiri akademikoak faltsutzea edo lapurtzea. Bereziki larritzat joko da azterketen ereduak edo erantzunen kopia lapurtzea, eta haiek hedatzea, edukitzea, erostea edo saltzea.
- i) Elkarbizitzarako bereziki kaltegarria den portaera baten jakitun edo lekuko izatea eta zuzendaritza taldeari ez jakinaraztea.
- j) Obedientzia ukatzeko portaerak, bereziki ezarritako hezkuntza neurriak betetzen ez direnean.
- k) Konstituzioan jasotako eskubide eta askatasunen aurkakoak diren edo indarkeriaren apologiatzat hartzen diren pintaketak edo idatzizko beste adierazpen batzuk egitea edo halako kartelak jartzea.
- l) Drogak kontsumitzea edo banatzea, tabakoa erretzea edo edari alkoholikoen edatea behin eta berriz ikastetxeko guneetan, eskolako garraiobideetan edo ikastetxeak antolatzen dituen jardueretan, edo portaera horiek hartzerantz bultzatzea.
- m) Elkarbizitzaren aurkako portaerak behin eta berriz egitea.
- n) Ikastetxeko jardueren ohiko garapena zuzenean galaraztera bideratutako edozein egintza edo jokabide oker.

- o) Ikasleek sinatutako bizikidetzarako konpromisoak ez betetzea. Konpromiso horiek 47/2010 Foru Dekretuaren 9.1 artikuluan aipatzen dira, honako hau esanez: *“Ikasle batek portaera arazoak baldin baditu, ikastetxearen, ikaslearen eta gurasoen edo legezko ordezkarien arteko elkarbizitzarako konpromisoak sinatzen ahalko dira, ikasturtearen edozein unetan, ahaleginak bateratzeko eta proposatzen diren ekintzak eta neurriak irakasleekin eta beste profesional batzuekin koordinatzeko.”*

Nolanahi ere, bizikidetzarako bereziki kaltegarria den portaeratzat joko da beste ikasle bat bultzatzea aurreko idatz zatian bizikidetzarako bereziki kaltegarritzat jotzen den portaera bat hartzera

## 7. artikulua. **Aringarriak eta astungarriak.**

1. Hezkuntza neurriak aplikatzeko orduan, honako inguruabar hauek aringarritzat har daitezke:

- a) Portaera desegokia berez onartzea eta, hala badagokio, kaltea konpontzea.
- b) Nahita egina ez izatea.
- c) Barkamena eskatzea.
- d) Eragindako kaltea konpentsatzeko zerbait eskaintzea.
- e) Lehenagotik hezkuntza neurriak aplikatu ez izana.
- f) Arau-hausleak bitartekaritza prozesuetan parte hartzeko borondatea izatea, horrelakoetarako aukera baldin badago.

2. Hezkuntza neurriak aplikatzeko orduan, honako inguruabar hauek astungarritzat har daitezke:

- a) Premeditazioa.
- b) Ikastetxeko elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren portaeretan berreslea izatea ikasturte berean.
- c) Eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kideei kalte egiten dieten portaerak.
- d) Ikaskide gazteagoei edo bereziki ahulak diren ikaskideei kalte egiten dieten portaerak.
- e) Jaiolekuagatik, sexuagatik, arrazagatik, sinesmen ideologiko edo erlijiosoengatik, desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsorialagatik edo beste edozein baldintza pertsonal edo sozialengatik bereizkeria dakarten ekintzak.
- f) Eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten gainerako kideen eskubideak urratzen dituzten jarduketak taldeka gitea bultzatzea edo animatzea.
- g) Elkarbizitzarako bereziki kaltegarria den edozein jarduketaren publizitatea egitea.
- h) Ikastetxeari edo eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kideei eragindako kalteak bereziki handiak izatea.

i) Zuzendu beharreko edozein portaera grabatzea eta/edo hedatzea.

## 8. artikulua. **Elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren portaeretan aplikatu beharreko hezkuntza neurriak.**

Elkarbizitzaren Erregelamenduan jasoak izanik, elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren portaeretan aplikatu beharreko hezkuntza neurriak hauek dira:

a) Eskola ordutegitik kanpora, eskola elkartearen aldeko lanak egitea eta, orohar, instalazioetan, autobusetan, jantokian, materialetan, dokumentuetan edo beste pertsona batzuen gauzetan eragindako kaltea konpontzea.

b) Jarduera osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea ikasturte osorako edo zati baterako.

c) Ikaslea maila bereko beste talde batera aldatzea behin betiko.

d) Irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara edo, ohiz kanpoko kasuetan, ikastetxera joateko eskubidea etetea, bi kasuetan hamabost eskola egunetarako gehienez. Etenaldia bitartean, ikasleak ezartzen diren prestakuntza jarduerak egin beharko ditu, bere hezkuntza eta ebaluazio prozesua eten ez dadin. Horretarako, lan plan bat diseinatuko da. Irakasleek plan horretako jardueren segimendua eginen dute eta irakasgaien azken ebaluazioan kontuan hartuko dituzte. Era berean, ikasleak etenaldi horretan programaturik dauden ebaluazio proba objektiboak egiten ahalko ditu.

Gainera, ikastetxea jakitun bada, hezkuntza neurria aplikatzearen ondorioz, adingabe bat arrisku egoera berezian edo babesik gabe gelditzeko aukera dagoela, zuzendaritzaren bidez, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei horren berri emanen die.

e) Ohiz kanpoko kasuetan, ikaslearen portaerak asaldura handia eragin baldin badio eskola elkarteari, derrigorrezko hezkuntzan, ikastetxeko zuzendariak, Eskola Kontseiluak ontzat eman ondoren, ikastetxe aldaketa eskatuko dio Ikuskapenaren eta Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusiarri. Ahal bada, ikaslea eskolaturik dagoen ikastetxe sare eta hizkuntza modalitate bereko beste ikastetxe batera eramanen da.

Derrigorrezko irakaskuntzaren ondoko ikasketetan ari diren ikasleen kasuan, elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren portaerak gertatuz gero, ikastetxeak matrikula deuseztatzea erabaki dezake, ohiz kanpoko neurri gisa. Xedapen honetan ezarritakoaren kontrako erreklamazioak ikastetxeko Eskola Kontseiluan aurkeztuko dira, idatzirik, eta ikastetxearen erabakia jaso den hasita, hamar egun epe barne.

9. artikulua. Behin betiko hezkuntza neurriak aplikatu aurretik, zuzendariak kautelazko neurriak aplikatzen ahalko ditu. **Kautelazko neurriak** honelakoak izanen dira:

a) Ikaslea taldez aldatzea aldi baterako.

b) Eskola batzuetara edo ikastetxera joateko eskubidea etetea aldi baterako.

c) Eskolaz kanpoko jardueretara edo jarduera osagarrietara joateko eskubidea etetea.

Ikastetxeek, beren autonomia erabiliz, kontuan harturik Hezkuntza Proiektua eta ikastetxearen izaera, ahalmena dute beren bizikidetzarako erregelamenduan 8. artikuluan adierazitako hezkuntza neurriak zehazteko. Halaber, ikasleak edo haren familiak ikastetxeak aukeratutako hezkuntza neurria ordeztu duen beste bat planteatzen ahalko du; ikastetxeko zuzendaritzak onartzen ahalko du proposamena, haren ustez hobea bada ikaslearentzat eta ikastetxeko bizikidetzarako.

6. artikulua a) idatz-zatian ezarritako portaeren kasuan eta, betiere artikulua horretan ezarrita badaude, jatorri edo ondorio gisa Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua aurkako bereizkeria edo generoan, sexu-orientabidean edo sexu-nortasunean oinarritutako jazarpena duten portaeren kasuan, edo jatorri gisa arraza, etnia, erlijioa, sinesmenak edo desgaitasuna duten portaeren kasuan, edo dituzten ezaugarri pertsonalen, sozialen edo hezkuntzakoengatik ahulenak diren pertsonen aurka egiten diren kasuan, oro har, neurri zuzentzaile hauetako bat hartuko da: eskoletara edo ikastetxera joateko eskubidea etetea, hamabost eskola egunetarako gehienez, edo beste ikastetxe batera bidaltzea; derrigorrezko irakaskuntzaren ondoko ikasketen ikasleen kasuan, aipatu eskubidea etetea ikastetxeko bizikidetzarako erregelamenduan ezartzen den gehieneko aldirako, edo haren matrikula deuseztatzea, bi kasuetan ikastetxeak proposatzen zaion neurria aurreko idatz-zatian azaldu bezala aplikatzea galarazi gabe

#### **10. artikulua. Elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren portaeretan hezkuntza neurriak aplikatzeko oiko prozedura.**

1. Portaera bereziki kaltegarri guztiak eta haren ondorioak ikastetxeko zuzendaritzari jakinarazi behar zaizkio. Zuzendariak edo, hala bada, haren eskuordetza hartzen duen irakasleak behar adina ikerketa edo jarduketa egiten ahalko ditu ekintza horrela tipifikatzeko, hala nola erantzuleak identifikatzeko eta ohiko prozedurari hasiera emateko, ekintzaren berri izan eta biharamunetik hasita hiru eskola eguneko epean gehienez.

2. Aurreko puntuan finkatzen den hiru eskola eguneko epea bukatuta, ustezko erantzulea edo erantzuleak identifikatu ez bad(ir)a, zuzendariak edo, hala bada, haren eskuordetza duen irakasleak, Elkarbizitzaren Erregelamenduan xedatutakoarekin bat, egoki iruditzen zaizkion jarduketekin segitzen ahalko du haiek identifikatzeko eta prozedura hasi ahal izateko.

3. Ohiko prozedura hasiko da hasteko dokumentua ikasleari, haren amari edo aitari edo legezko ordezkariari eta instruktoreari ematearekin batera. Elkarbizitzarako bereziki kaltegarria den portaera preskribituko da dokumentu horren entrega ez bada egiten egintzen berri izan eta hirurogei eskola eguneko epearen barrenean.

4. Aplikatzen diren kautelazko neurriak, halakorik bada, prozedura bukatu arte mantentzen ahalko dira, betiere proposatutako neurrirako ezarri den denbora eta 8. artikuluan finkatutakoa gainditu gabe, aplikatu beharreko neurriarekin bat egiten duenean. Ikasleak kautelazko neurrien pean ematen duen denbora aplikatzen den hezkuntza neurrian ezartzen den denboratik deskontatuko zaio.

5. Ohiko prozedurari hasiera emateko dokumentua zuzendaritzak egin beharko du eta honako alderdi hauek jasoko ditu:

a) Neurri horiek aplikatzeko eskumena ematen dion araudiaren aipamen zehatza.

- b) Prozedura irekitzea ekarri duten egintzak eta frogak.
- c) Zuzendu beharreko portaera, hautsitako arauak, data eta tokia.
- d) Inplikaturako ikaslea.
- e) Tramitazioaren ardura duen instruktorea, klaustroko kideen artean hautatua.
- f) Aplikaturako kautelazko neurriak, halakorik bada.
- g) Inguruabar astungarrien eta aringarrien azalpena, horrelakorik baldin bada.
- h) Aplikatu beharreko hezkuntza neurriak, horiek hasteko eta bukatzeko egunak eta aplikatzeko baliabideak.
- i) Alegazioak egiteko prozedura eta epeak, adieraziz alegaziorik aurkezten ez bada, egintzak frogatutzat joko direla eta prozedura hasteko dokumentua prozedurari bukaera emateko ebazpentzat hartuko dela.
- j) Eskola Kontseiluan erreklamazioak aurkezteko prozedura eta epea.

6. Aurreko puntuan aipatzen den dokumentuan, zuzendaritzak proposatzen ahalko du prozeduraren tramitazioa 14. artikuluan ezarri bezala egitea, kontuan harturik aurretik hartan ezarritako salbuespenak.

7. Alegazioak, zuzendariari zuzenduak, ikastetxean aurkeztuko dira, idatziz, prozedura hasteko jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi eskola eguneko epearen barruan. Idazki horretan, halaber, instruktorea errefusatzeko eskaera arrazoitua egiten ahalko da.

8. Errefusatzeko instruktoreak adieraziko du alegaturako zergatia baden edo ez. Errefusatzeko idazkia aurkeztu eta hurrengo eskola egunean, zuzendariak horren gaineko ebazpena eman eta jakinarazi beharko du.

9. Ezarritako epean alegaziorik aurkezten ez bada, egintzak frogatutzat hartuko dira eta prozedura hasteko dokumentua prozedura bukatzeko ebazpentzat hartuko da.

11. artikulua. **Alegazioak** aurkezten diren kasuetan, ohiko prozeduraren tramitazioaren jarraipena eta prozeduraren ebazpena.

1. Ikasleak, haren gurasoek edo legezko ordezkariak alegazioak aurkeztuz gero ezarritako epean, instruktoreak, bere agintea erabiliz, egoki iruditzen zaizkion jarduketak egingen ditu egintzak argitzeko. Alegazioak aurkeztu eta bost eskola eguneko epean gehienez, eta alegazioak kontuan harturik, ebazpen proposamena prestatu eta zuzendariari aurkeztuko dio. Proposamen horretan alderdi hauek jasoko dira:

- a) Frogatutzat hartzen diren egintzak eta hori egiaztatzen duten frogak.
- b) Zuzendu beharreko portaera, hautsitako elkarbizitza arauak, data eta tokia.
- c) Inplikaturako ikaslea.

- d) Aplikatutako kautelazko neurriak, halakorik bada.
- e) Inguruabar astungarrien eta aringarrien azalpena, horrelakorik baldin bada.
- f) Aplikatu beharreko hezkuntza neurrien proposamena.

Bost eskola eguneko epea luzatzen ahalko da, inktoreak hori justifikatzeko arrazoiak daudela uste badu.

2. Ebazpen proposamena aurkeztu eta biharamunetik hasita bi eskola eguneko epean gehienez, zuzendariak prozedura bukatzeko ebazpena emanen du. Bi eskola eguneko epea luzatzen ahalko da, zuzendaritzak hori justifikatzeko arrazoiak daudela uste badu. Ebazpen horretan honako hauek adieraziko dira gutxienez:

- a) Neurri horiek aplikatzeko eskumena ematen dion araudiaren aipamen zehatza.
- b) Frogatutako egintzak eta zuzendu beharreko portaerak.
- c) Inguruabar astungarriak eta aringarriak, horrelakorik baldin badago.
- d) Aplikatu beharreko hezkuntza neurriak eta, hala badagokio, horiek hasteko eta bukatzeko egunak eta aplikatzeko baliabideak.
- e) Eskola Kontseiluan erreklamazioak aurkezteko prozedura eta epea.

3. Ohiko prozeduraren ebazpenaren berri ikasleari eta bere gurasoei edo legezko ordezkariari emanen zaie, idatzi baten bidez, non adierazi beharko baita ebazpen horrek ez duela amaitzen administrazio bidea eta haren aurka, aukeran, 13. artikuluan aipatzen den erreklamazioa edo bidezko errekurtsio juridikzionala aurkezten ahalko dela, baita zein organotan aurkeztu behar den eta zein epetan.

4. Nolanahi ere, ohiko prozeduraren tramitazioa hogeita hamar eskola eguneko epean bukatu beharko da, prozeduraren hasieraren jakinarazpenetik hasita interesdunari edo, hala badagokio, familiari jakinarazten zaion arte. Bestela, prozedura iraungitza hartuko da.

## 12. artikulua. **Erreklamazioak.**

1. Prozeduraren gaineko ebazpena jakinarazita, ikasleak, adinez nagusia bada, edo haren gurasoek edo legezko ordezkariak zuzendariaren erabakiaren berrikuspena eskatzen ahalko diote Eskola Kontseiluari, jakinarazpena jaso eta bi eskola eguneko epearen barruan.

2. Hartutako erabakia berrikusteko, Eskola Kontseiluaren bilkura berezia deituko da. Prozedurari bukaera emateko ebazpena eta erreklamazioa ikusita, Kontseiluak zuzendariari proposatuko dio aplikatutako neurria berresteko edo aldatu edo baliogabetzeko.

3. Kontseiluaren proposamena hamar eskola eguneko epean egin beharko da, erreklamazioa jaso eta biharamunetik hasita. Eskola Kontseiluaren proposamena erabakia aldatu edo baliogabetzekoa baldin bada, proposamena jaso eta biharamunetik bi eskola eguneko epean, zuzendariak Hezkuntza Departamentuari hartutako erabakiaren legezko txostena eskatzen ahalko dio.

Txosten hori hamar eskola eguneko epean egin beharko da. Zuzendariak bere ebazpena eman eta erreklamazio-egileari idatziz jakinarazi behar dio.

4. Jakinarazpen horretan adierazi beharko da ebazpenaren aurka bidezko den errekurtsioa, zein organotan jarri behar den eta zein epetan.

### 13. artikulua. **Prozedura adostua.**

1. Ikastetxeko zuzendariak arau-haustea egin duen ikasleari eta haren gurasoei edo legezko ordezkariari aukera emanen die prozedura adostuaren bidea hartzeko, inguruabar hauek betetzen badira:

a) Bereziki kaltegarria den portaera aitortzea.

b) Kalteturik izanez gero, haiei barkamena eskatzea.

c) Ikastetxeak aintzat hartzen dituen beste inguruabar batzuk, Elkarbizitzaren Erregelamenduan jaso beharrekoak.

2. Espedientea ezin izanen da prozedura adostuaren bidez tramitatu baldin eta ikasturte berean ikasleari aplikatu zaion hezkuntza neurriren bat ez bada bete, edo ikastetxeko bizikidetzarako erregelamenduan horrela ezartzen den kasuetan.

3. Prozedura adostuaren bidez tramitatzeko aukera ohiko prozedura hasteko dokumentuan jasoko da. Dokumentu horretan interesdunei bilera bat egitea proposatuko zaie, behar den deialdiaren bidez.

4. Bilera hori ikastetxeko zuzendaritzarekin izanen da eta helburua izanen da prozedura adostuaren abantailak azaltzea. Bilera horrexetan, ikasleak edo haren gurasoek erabakiko dute prozedura adostua onartu edo baztertzen duten.

5. Bilerara agertzen ez badira edo aukerabide hori baztertzen badute, hezkuntza neurriaren aplikazioaren tramitazioa ohiko prozeduraren bidez eginen da, foru dekretu honen 11. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, eta artikulua horren 7. puntutik aurrera adierazitako epeen kontaketa hasiko da. Horrelakoetan, alegazioak aurkezteko eta instruktorea errefusatzeko epea bilera egiteko finkatutako egunaren biharamunetik hasiko da.

6. Prozedura adostua tramitatzeko modua eta prozeduran parte hartzen duten alderdiak ikastetxe bakoitzak erabakiko ditu. Nolanahi ere, aplikatzen den neurria arinagoa izanen da prozedura hasteko dokumentuan ezartzen dena baino.

7. Prozedura adostua tramitatu gero, zuzendaritzak elkarbizitzarako konpromisoa erredaktatu beharko du. Konpromiso horretan, gutxienez, ikaslearen eta gurasoen edo legezko ordezkarien onarpena konpromisoari, aplikatutako hezkuntza neurria eta hura betetzeko baliabideak agertuko dira. Konpromisoa hiru eskola eguneko epean adostu eta sinatu beharko da, bilera egin eta biharamunetik aurrera. Sinadurak bukaera emanen dio prozedura adostuari.

8. Nolanahi ere, prozedura adostuaren bidezko tramitazioa hogeit hamar eskola eguneko epean bukatu beharko da, prozeduraren hasiera jakinarazten denetik hasita. Bestela, prozedura iraungitzat hartuko da.



9. Prozeduraren tramitazioaren bitartean, akordioak porrot egiten badu, ohiko prozeduraren bidez segituko da, eta 11. artikuluko 7. puntutik aurrera adierazitako epeen kontaketa hasiko da. Horrelakoetan, alegazioak aurkeztu eta instruktorea errefusatzeko epea porrota gertatu eta biharamunetik hasiko da.

14. artikulua. **Dokumentazioa artxibatzea** eta erregistroko idatzoharra deuseztatzea.

1. Elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren portaerak direla eta, ikasleei hezkuntza neurriak aplikatzeko irekitzen zaizkien prozeduren tramitazioaldiko dokumentazioa ikastetxeek ezartzen duten euskarrian eta prozedurari jarraikiz artxibatuko da.

2. Hautsitako arauak eta aplikatutako hezkuntza neurriak erregistroetatik desagertuko dira neurria betetzen denetik bi urte bete ondoren.

## 6. ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO PLANA

---

### 1. Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan jasotako printzipioen zehaztasunak.

Aniztasunari erantzuteko plan honek ondoko premisa hauek ditu abiapuntutzat:

1. Ikasteko prozesuetan ikasle guztiak desberdinak dira, jarrera, interes, motibazio, gaitasun, ikasteko estilo eta aurreko esperientzia desberdinak dituztelako.

2. Hezkuntza sistemak ikasleen aniztasunari erantzun behar dio, normalizazioa, konpentsazioa, berdintasuna, ekitatea, integrazioa eta inklusioa printzipioak oinarritzat harturik. Horrela bada, printzipio hauetan laburbildu egiten dira “aniztasunari erantzutea” kontzeptuari dagozkion funtsezko ideiak:

- Normalizazioa: gizartean arruntak eta ohikoak diren baliabide eta zerbitzuen bitartez norberak dituen berezko gaitasunak garatzen laguntzea bilatu beharra dago printzipio honen arabera.
- Konpentsazioa: gizarte nahiz eskola mailako gabeziak dituen ikaslegoari erantzuteko, eskola giroan egiten den parte-hartzea. Honen bidez, gizarte egoera gutxiagotuetan aukera berdintasuna erraztea bilatzen da.
- Berdintasuna: Denontzako hezkuntza eskubidea izateko aukera eta erantzunetan berdintasunaren eredu bezala ulertuta, arraza, sexu, gizarte edota ekonomia mailetan bereizketarik egin gabe.
- Ekitatea: norberak dituen beharren araberrako erantzuna ematea da, guztioi erantzun berdina eman beharrean. Modu horretan, ikasteko prozesuetan bilakaera mailarik handiena bilatu beharra dago ikasleen adimen-, afektu-, gizabanako edota gizarte-garapenean, hastapenetik ikasketen bukaera bitarteko ibilbidean.
- Integrazioa: gizartean arruntak diren giza-multzoetan egiten diren jardueretan parte hartzea suposatzen du, beti ere komunak diren espazio nahiz baliabideak partekatuz.
- Inklusioa: ikasle guztiek, beraiek oinarritzako beharrak ase eginez, kalitatezko hezkuntza jasotzeko duten eskubide bezala ulertu beharra dago printzipio hau, bereziki talde baztertu eta ahulenei lehentasuna emanez. Gizabanako guztien gaitasunak garatzea bilatzen du printzipio honek, gizarte mailako bazterkeria mota guztiak ezabatu eta gizarte-kohesioa bilatuz.

Aipatutako printzipioak oinarrizko ideiak dira gure hezkuntza proiektuak jasotzen duen ikasleen eskubide bati erantzuna eman ahal izateko, alegia, “prestakuntza interes ezberdinetara eta ikasleen ahalmen ezberdinetara egokitutako hezkuntza” izateko eskubidea.

## **2. Hezkuntza-laguntzaren premia berariazkoak atzeman eta baloratzeko irizpideak eta prozedura.**

Ikasleen hezkuntza-premiak, bai aurretik ezagunak direnak eta baita ikasketa prozesuan ere ager daitezkeenak, jaso ahal izatea da irizpide nagusia. Horretarako, ikasleen premiak jasotzeko prozedura lotuta joango da, ezinbestean, irakaslegoak egiten duen behaketa, balorazio eta ebaluazio lan jarraituarekin; horrela bada, ebaluazio prozedurak berak dituen une ezberdinekin batera burutuko da ikasleen premia berariazkoak antzeman eta baloratzeko lana. Une horiek honako hauek izango dira:

- Hasiera ebaluazioa: aurreko ikasturteko ebaluazio-aktak eta informazioetatik abiatuta hezkuntza-premiak izan ditzaketen ikasleen lehenengo antzematea. Lehen Hezkuntzatik datozen ikasleen kasuan, Alaitz eskolako irakasleek emandako informazioa izango da abiapuntua, informazioa hori jasotzeko dagoeneko adostuta dagoen koordinazioa aurrera eramanez. Jasotako informazioa irakasle-taldeei helaraziko zaie kurtso hasieran burutzen den hasiera ebaluazioaren saioetan; beraietan, ikasle taldeetan eman daitezkeen egoera ezberdinak jakinaraziko dira, esate baterako: gainditu gabeko irakasgaiak dituztenak, aurreko ikasturteko helburuak lortu ez arren promozioa eskuratu dutenak, errepikatzen geratu direnak, aurreko ikasturteetan hezkuntza-laguntza jaso dutenak, egoera pertsonal direla eta, berariazko premiak dituzten ikasleak (arreta defizita, gaitasun handiak, egoera sozio-kultural gutxitua, urritasun fisiko nahiz psikikoak,...), ...
- Ebaluazio jarraitua: ikasturtean zehar burutzen diren irakasle-bileretan premia horien segimendua eta balorazioa burutuko da, horien bitartez ager daitezkeen neurri eta erabaki berrietara egokituz.
- Azkeneko ebaluazioa: ikasle bakoitzaren inguruan azkeneko erabakiak hartzeko unea da, aldi berean, datorren ikasturteari begira, ikasleen premiei erantzuteko neurrien abiapuntua dena.

## **3. Helburu zehatzak, eta erabakiak hartzeko irizpideak.**

Helburu nagusia da **ikasle guztiek ahalik eta gehien garatzea beraien gaitasunak eta ahalmenak**, proiektu pertsonal eta profesional bat eraikitzeko gai izan daitezen.

Azkeneko helburu nagusi hau lortzeko ezinbestekoa da tarteko helburu batzuk ere eskuratzea:

- **Ikasle bakoitzaren beharretara egokitzea**. Eskainiko dugun hezkuntza-erantzuna ikasle bakoitzaren beharretara egokituta egongo da.
- **Eskola-esparru arruntetik jardutea**. Eskola-esparru arruntetik jardun behar da hezkuntza-sistemaren funtsezko elementuen gainean (curriculumarekin, metodologiarekin eta antolaketarekin lotutako elementuak), eta arreta berezia jarriko dugu ikasle guztien parte-hartzea eta ikaskuntza bermatzen duten irakaskuntza-ikaskuntza estrategietan.

- **Irakasle guztiak, gainerako langileak eta familiak inplikatzeari.** Irakasleei lagunduko dieten estrategiak abiarazi beharko dituzte hezkuntzako langile guztiek, eta haien arteko koordinazioa eta lankidetzak gauzatzeko egiturak sortu.
- **Ikasleen beharrak garaiz antzeman eta berauei erantzuteari lehentasuna eman.**
- **Ikasteko aukera errealak ematea gizartetik baztertuak izateko arrisku handiena duten kolektiboak.**

Erabakiak hartzeko orduan bi erreferente izango ditugu abiapuntutzat:

- Ikasleen premien antzematea, ikasturtean zehar egindako balorazioak oinarri bezala harturik
- Hezkuntza premia horiei erantzuteko eskura ditugun baliabideak, pertsonalak nahiz materialak: ohiko irakaslegoa, irakasle espezialistak, emandako baliabideak,...

Bi erreferente hauen gainean eraikiko da, ikasturte bukaeran, aniztasunari erantzuteko plana, Urteko Plan Orokorra deiturikoan jasoko dena, ikasleen premiak eta berauei erantzuteko hartutako neurriak zeintzuk diren zehaztuz.

#### **4. Hezkuntza-laguntzaren premia berariazkoak identifikatu eta baloratzea.**

Hezkuntza-laguntzaren beharra daukaten ikasleak antzemateko eta baloratzeko jarraian aipatzen den sailkapen eta definizioak erabiliko dira:

- **Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak**  
Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek muga nabarmenak dituzte; beste ikasleek ez bezalako mugikortasun funtzionala, buruko funtzioa, egokitze-jarrerara, ikusmena edo entzumena dute. Horregatik, beste hezkuntza-proposamen bat behar dute, aparteko laguntza pedagogikoa edo/eta curriculum-neurriak dituena.
- **Ikasteko zailtasunak dituzten ikasleak**  
Atal hau ikasle multzo heterogeneo bati buruzkoa da. Ikasle horiek berariazko premiak dituzte, adimen-atzeratasuna dutelako edo zailtasunak dituztelako hizkuntza ulertzeko eta ekoizteko, irakurtzeko, idazteko, kalkulu aritmetikoak egiteko edo arreta jartzeko. Hori dela eta, premia horietara egokitu behar da hezkuntza-erantzuna.  
Egoera hau zehaztearren, ondoko ikasle mota hauek egongo lirarteke talde honen barruan:
  - Ikasteko Berariazko Zailtasunak daukaten ikasleak: irakurtzeko eta idazteko zailtasunak dituzten ikasleak, kalkuluak egiten ikasteko zailtasunak dituzten ikasleak eta hizkuntzarekin aparteko zailtasunak dituzten ikasleak.
  - Arreta-defizita duten ikasleak, hiperaktibitatea dutenak edo ez dutenak.
  - Mugako adimen-gaitasuna duten ikasleak.
- **Gaitasun handiko ikasleak**  
Mota askotako ikasleen talde zabala da honako hau. Batez besteko adimen-maila baino altuagoa izaten dute, sormen-maila altuak, ikasteko potentzial ona, errendimendu akademiko ona edo txarra, eta, oro har, ikasteko eta/edo haien interesetikiko motibazio handia izan ohi dute.

- **Hezkuntza-sisteman ohi baino beranduago sartu diren ikasleak**
- **Eskolako ibilbide edo baldintza pertsonalak direla eta, laguntza beharrak dituzten ikasleak**  
Era askotako ikasleen multzo zabala da hau ere. Ikasleak honako egoera hauetako batean egongo dira talde honetan sartzen badira:
  1. Hizkuntza behar adina ez menderatzea edo oinarrizko gaitasuna eskuratzeko prozesuan desfasea izatea.
  2. Osasun-arazoak izatea, eta, medikuaren aginduagatik, ikastetxera ezin joan izatea.
  3. Gizarte-bazterketako arriskuan egotea ingurune sozialera, familiara edo eskolara ezin egokitu izateagatik. Honako hauek barne hartzen ditu:
    - Portaera-arazoak dituzten ikasleak, inguru psikosozial desorekatu batean bizi direnak: antolaketarik gabeko familia batean bizi dira, zabarkeria eta abusu fisikoak pairatzen dituzte edo/eta haien familia ez da gai behar bezala erantzuteko gaztearen arazoei.
    - Adimen-urritasunik izan ez arren, eskolan porrot egiten duten ikasleak. Ikasteko zailtasunak edo/eta eskolako jardueretara egokitzeko zailtasunak estuki lotuta daude ikasleen portaera desegokiarekin. Are gehiago, portaera horrek eragotzi egiten die helburu akademikoak lortzea eta gizartean modu egokian parte hartzea.
    - Berez honako jokabide hauek dituzten ikasleak: ez dute motibaziorik, ez zaie ezer axola, jarrera uzkurra izaten dute, eskolako materialik gabe joaten dira eskolara, ez dute etxeko lanik egiten eta ez dute harremanik inorekin.
- Beren kultura-nortasunaren onarpenik ez duten gazteak (eskolako eta familiako kulturak aski ezberdinak dira), portaera desegokiak dituztenak.
- Haurtzaroan babesik eduki ez izanarekin lotutako beste egoera batzuk: abandonua, zabarkeria, afekturik ez izana, tratu txarrak eta/edo erakundeetatik kanpo geratzea.
- **Desberdintasun sozialeko egoeran dauden ikasleak**  
Gizartean dauden desberdintasun ekonomiko eta sozialak direla eta, gizarte-talde batzuk desberdintasun-egoeran daude. Talde horiek gizarte-egoera ahulekoak direla esango dugu; izan ere, ez dituzte gainerako taldeek hezkuntza jasotzeko dituzten erraztasun eta bitarteko berberak.

Aipatutako hezkuntza-premia mota hauek antzeman eta baloratzeko, profesional eta erakunde ezberdinen parte hartzea ezinbestekoa da. Besteak beste:

- Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroa (NHBBZ edo CREENA erdarazko adieran): urritasun fisiko nahiz psikikoekin lotura duten ikasleen hezkuntza-premia bereziak daudenean.
- Orientazio Departamentua eta Irakasle taldeak: ikasteko zailtasunak, gaitasun handiak, Hezkuntza-sisteman ohi baino beranduago sartu eta eskolako ibilbide edo baldintza pertsonalak direla eta, laguntza beharrak dituzten ikasleen kasuetan.
- Gizarte Zerbitzuak: bazterketa edota desberdintasun sozialeko egoeran dauden ikasleak daudenean.

- Osasun Zerbitzuak: arreta defizita, portaera nahiz nortasun nahasmendu larriak, osasun arazoak eta horrelako egoerak ematen direnean.

## 5. Ikastetxe osorako ezarri diren curriculum neurrien eta antolamendu neurrien azalpena.

ikasle guztiei hezkuntza-arreta bermatzeko neurri arruntak edo bereziak hartu ahalko dituzte. Neurri horiek etengabeko multzoa osatuko dute, etapa bakoitzeko curriculum araudian aurreikusitako neurri arruntetatik hasi eta laguntza premia berariazkoa duten ikasleentzako neurri berezietaraino.

Neurri arruntak dira curriculumeko nahitaezko elementuak aldarazten ez dituztenak. Honako hauek **neurri arruntak** dira:

a) Tutoretza ekintza, ikasleen jarraipen sistematikoa bermatzea ahalbidetzen duena, eskolan, eremu pertsonalean nahiz eremu sozialean zailtasunei aurrea hartzeko eta daudenak atzemateko, banakako premiei erantzuna emate aldera.

b) Aukeratu ahal izatea, curriculuma ikaslearen gaitasun, interes eta motibazioen arabera egokitzeko.

c) Maila edo ziklo berean beste ikasturte bat ematea, hezkuntzako etapa bakoitzerako ezarritakoari jarraituz.

d) Hezkuntza-laguntza eta indartze programak: taldekatze desberdinak, taldeen banaketak, talde malguak, arlo edo irakasgaien indartzea, eta ezagutzak handitu edo sakontzeko neurriak.

e) Curriculum arrunta garatzeko programak. Horrelako programetan etapako helburuak betetzeko oinarrizko baldintzak ezartzen dira, berariazko metodologiaren bitartez edo/eta edukien antolaketa desberdinaren bitartez.

**Neurri bereziak** curriculumeko sarrera elementuak edo/eta nahitaezko elementuak aldarazten dituzten curriculum egokitzapenak dira. Ikasle hauek dira halako neurrien hartzaileak: ezgaitasunaren edo portaera arazo larrien ondoriozko hezkuntza premiak dituztenak, ikasteko zailtasun berariazkoak dituztenak, adimen gaitasun handikoak, hezkuntza sisteman berandu sartzen direnak eta egoera pertsonal eta sozial ahulean daudenak.

Curriculum egokitzapena dela medio, curriculum arrunta taldeko ikasle bati egokitu eta moldatu ahal zaio, curriculumeko alderdi jakin batzuk lehenetsiz, ordeztuz, aldatuz edo kenduz, oinarrizko gaitasunen garapena errazteko.

Honako hauek dira neurri bereziak:

a) Sarrerako curriculum egokitzapena, curriculum arrunta nahiz curriculum bereziren bat garatzea erraztuko duten baliabideak, materialak edo komunikaziorako bitartekoak jartzeko.

b) Curriculum egokitzapen garrantzitsua. Horrelako egokitzapenak proposatzen dira ikasleak ziklo batetik edo bi kurtsotik gorako atzerapena duenean arlo edo irakasgai gehienetan.

c) Kurtso edo etapen iraupena malgutzea.

## 6. Aniztasunari erantzuteko plana garatzeko behar diren langileak eta baliabideak eta profesional bakoitzaren eginkizun eta ardurak.

Aniztasunari erantzuteko plana aurrera eraman ahal izateak ondoko profesional hauen parte hartzea suposatzen du:

- **Irakasle taldeak**, departamentu didaktiko ezberdinetako kideak: curriculum eta antolaketa neurri arruntak (derrigorrezko edukien aldaketa suposatzen ez dutenak, alegia) hartzearen erantzuleak. Era berean, ikasleen hezkuntza-premia bereziek hala aginduko balute, norbere arloari dagozkion curriculum-egokitzapenak egin eta burutzearen ardura dute.

- Orientazio Departamentuari dagozkion **irakasle espezialistak**: hezkuntza-premia bereziak dauzkaten ikasleentzako curriculum-egokitzapenak egiten laguntzeaz gain, kide ezberdinek ondoko ardura hauek ere burutu behar dituzte:

- Pedagogia Terapeutikoko irakasleak: hezkuntza laguntza behar duten DBH 1. eta 2. mailako ikasleen atentzia
- Orientatzailea: kasu bakoitzean hartu beharreko neurriak hartu ahal izateko balorazio psikopedagogikoak eta derrigorrezko txostenak egitearen arduraduna. Halaber, hezkuntza laguntza duten ikasleen atentzian eta jarraipenean parte hartzen duten eskolaz kanpoko gainerako profesionalekin koordinazio lanak burutzearen ardura dauka.

- **NHBBZ**ko irakasle espezialistak: urritasun fisiko nahiz psikikoak daudenean, ikasleen hezkuntza-premia bereziak baloratu eta berauen atentzia egiten ikastetxeari laguntzeko erantzukizuna dute.

- **Osasun arloko profesionalak**, Osasunbidea edota zerbitzu pribatuetakoak: zenbait nahasmendu ematen direla egiaztatzeko nahitaezko txostenak egitearen arduradunak, batez ere nahasmendu horietatik atentzio-neurri zehatzak hartzea ondorioztatu behar denean.

- **Gizarte Zerbitzuetako profesionalak** (udal zerbitzuetakoak nahiz Nafarroako Gobernuko Gizarte Politika Departamentutakoak): maila soziokultural edo ekonomikoan gabeziak izan eta gizartean bazterketa pairatzeko arriskua duten ikasleen atentzian eta jarraipenean lagundu egiten dute .

## 7. Familiekiko eta kanpoko erakundeekiko lankidetzak.

Hezkuntza-laguntza duten ikasleei erantzuna emateko orduan, ezinbestekoa suertatzen da familiaren lankidetzak; horrela bada, hartutako erabaki eta neurrien onarpenak eta adostasunak itxaropen baikor bat eta, era beran, laguntzeko joera bat ere ekarriko dute familien aldetik, dudarik gabe erantzunen arrakastan lagungarriak izango direnak. Hori dela eta, egoera arruntetatik aldetzen den edozein antolaketa edo curriculum neurri hartu baino lehen gomendagarria da familiaren adostasuna izatea, bereziki ikasgela arruntetatik egin litezkeen talde berezietan eta antzeko antolaketak egin behar direnean.

Ikasleen hezkuntza beharrei erantzuten lagundu egiten duten eskolaz kanpoko erakunde eta profesionalak egoera beran daude: irakasle partikularrak, akademiak, gabinetete pribatuak, osasun eta gizarte zerbitzuak,... Beraiekiko koordinazio eta lankidetzak ezinbestean bilatu beharra dago ikastetxearen partetik ikasle hauen atentzian lan eraginkorra lortzearen. Horrela bada, institutuaren aldetik (tutoreak eta Orientazio Departamentuaren kideak bereziki) beharrezkoa den komunikazio eta lankidetzak bilatuko da: familia eta kanpoko hezkuntza-laguntza ematen duten erakundeekin (gabineteak, akademiak, irakasle partikularrak) koordinaketa egitea dagokie tutoreei eta Orientazio departamentuak, aurreko

eginbeharrak burutzen tutoreei laguntzeaz gain, bestelako erakundeekin koordinaketa eta lankidetzaren ardura izango luke: NHBBZ, osasun nahiz gizarte zerbitzuak,...

## **8. Aniztasunari erantzuteko planaren ebaluazioa eta jarraipena.**

Ikasturtean zehar ikasleen ebaluazioa egiteko aurrera eramaten diren espazio eta denbora ezberdinetan egingo dute irakasleek Plan honen ebaluazio eta segimendua, talde ezberdin eta laguntza mota guztietan parte hartzen duten irakasle guztiek. Horrela, ebaluazio horren harira aldaketak edota neurri berriak jasotzea eta plana gaurkotua izatea gerta liteke.

Ikasturte bukaeran burutuko den ebaluazioa bere aldetik, hurrengo ikasturterako aniztasunari erantzuteko plan berriaren abiapuntua izango da.

## **9. Harrera plana.**

Insitutuan berandu sartu diren ikasleen egokitzapenik hoberena sustatea helburutzat duen plana izango da. Honen bitartez institutuak ikasleen ezaugarri, interes, behar eta gaitasunak ezagutuko ditu, hezkuntza prozesua hauetara moldatu ahal izateko. Honetaz gain, plan honek ikasleek eta hauen familiek institutuak eta honen testuinguruak eskaintzen dituzten aukera eta baliabideak ezagutzea ahalbidetuko du.

Hau garatzeko hurrengo pausoak emango dira:

1.- Orientazio Departamentuak Ikaslearen jatorrizko zentroarekin kontaktua egingo du. Honen bitartez ikaslearen maila curricularra ezagutu ahal da. Honetaz gain, ikaslearen interes, behar eta motibazioen inguruko informazioa ere partekatuko da.

Beharrezkoa balitz eta ikasleak Hezkuntza-Laguntza Berariazko Premiak dituenean, koordinazioa aregotuko da, ikaslearen txostenak edota froga psikopedagogiko partekatuko dira, orientatzaileen arteko informazioaren traspasoaren bitartez.

2.- Ikaslearen familiarekin egiten diren bileren bitartez ikasleraren eta bere testuinguruaren informazio garrantzitsua eskuratuko da. Bilera hauek Zuzendaritza Taldeko arduradunak eta, beharrezkoa balitz, orientatzaileak gauzatuko ditu.

Honetaz gain bilera hauetan Zuzendaritza Taldeko arduradun batek ikastetxea, honen funtzionamendua, baliabideak, arauak, familia eta ikasleen eskubidea zein betebeharrak eta ikaslea eta familiarentzako garrantzitsua den informazioa guztia eskainiko die.

Familiak berriak direla kontuan izanda, arreta berezia jarri beharko zaio testuinguruko baliabideak ere ezagutu ditzaten (osasun zerbitzuak, liburutegiak, gazteentzako baliabide zerbitzua,...).

3.- Behin ikaslea etorri egin denean, bere maila curricularra baloratzeko neurriak hartuko dira. Gehiago sakontzeko beharra ikusten ez den bitartean arlo instrumentalak (matematika, euskara, gaztelera eta ingelesa) baloratuko dira, maila neurtzeko oinarritzko frogen bitartez.

Froga hauek egiterakoan arreta berezia jarri beharko zaio ikasleak euskeraren inguruan duen ezagupenari.

Arreta berezia jarri beharko zaio euskara ezagutzen ez duten ikasleei. Kasu hauetan Institutuak eskura dituen baliabideak erabiliko ditu hizkuntzaren ezagutza ez izateak ekarri ditzakeen kalteak konpentsatu

eta hizkuntzaren lorpena ahalik eta lehen gertatu dadin bermatzeko. Honetarako kanpo ergileekin (euskategiak, hezkuntza departamentua,...) elkarlana egingo da.

4.- Soilik beharrezkoa den kasuetan Orientazio Departamentuak ebaluazio psikopedagogikoak burutuko ditu ikaslearen ezaugarrien ezagupen sakonagoa eta hezkuntza neurri egokituagoak lortzeko.

5.- Lortutako informazioarekin ikaslearentzako beharrezkoak diren neurriak diseinatu, egokitu eta garatu egingo dira. Hauek, beste ikasle guztiei eta Aniztasunari Erantzuteko Plan honetan jasotzen direnak izango dira. Hauetaz gain 93/2008 Foru Aginduak, aniztasunari nola erantzun ezartzen duenak, hurrengo neurriak eskaintzen ditu hezkuntza sistemara berandu iristen diren ikasleentzako:

*“Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, berandu sartu eta ikasturte bateko atzerapen orokorra duten ikasleak, adinagatik dagokien kurtsoan sartu ordez, urtebete gazteagoen kurtsoan sartu ahal izanen dira.*

*Bi ikasturteko edo gehiagoko curriculum atzerapena dutenek, kurtso bat edo bi beherago sartzeaz gain, beren premien arabera laguntza jasoko dute.*

*DBHra egokitze zailtasunak dituzten ikasleak etapa horretan ezarritako”.*

6.- Behin informazioa lortu denean, irakasle-taldearekin partekatuko da, beti ere ikaslearen ikaskuntza-irakaskuntza prozesu eta egokitzapen prozesurako garrantzitsua denean. Honeratako ikasleraren tutorearekin bilerak gauzatuko dira eta beharrezkoak balira, beste ikasgaietako irakasleekin ere egingo dira.

4.- Tutoreak ikaslearen harrera burutuko du. Honen bitartez ikasle berriarik ikastetxea, honen funtzionamendua, arauak, eginbeharrak, ikaslearen eskubideak,... ezagutaraziko dizikio.

Tutoreak ikaslea bere ikasgelan egokitzea ahalbidetu beharko du. Honetarako beharrezkoak diren (eta tutoretzarako materialean jasotzen diren) dinamikak antotuko dira. Hauek, ikasleek elkarezagutzea eta taldeko dinamikan txertatzea izango dute helburu. Dinamika hauek Orientazio Departamentuaren aholkularitzaz, tutoreak gauzatu egingo ditu. Kasu hauetarako interesagarria izan daiteke ikasle tutoreak erabiltzea eta hauen bitartez ikasleraren egokitze prozesua laguntzea.